

2018KO AURREKONTUEN MEMORIA

Iritsi da unea 2018ko aurrekontua aurkezteko. Arrasateko udalak 35.649.758,18 miliotako aurrekontu orokorra (Iturbide egoitzarena barne) kudeatuko du 2018an.

Aurrekontua finantza administraziorako lan tresna bat da, oinarri duena urtean zehar zer proiektu egin planifikatzeko eta ze lerro estrategiko jorratu behar diren gauzatzeko erabiltzen dena. Abiatuta dauzkagun baliabideetatik eta jakinda horiek zertarako diren, aurrekontuan zehazten da zer proiektu, zerbitzu eta jarduera egin nahi ditugun urte osoan.

2018ko aurrekontuak, legealdiko proiektuen linea gordetzen du eta legealdiaren erdia bete denez, linea batzuk indartu egin behar izan dira, izan ere, proiektu luzeak legealdian hasi eta legealdiaren amaieran bukatzen dira, eta amaieran behar izaten da errekurtsio gehiago bidertzea. Horrela, garbi ikusten da 2018ko aurrekontuetan, esfortzu handia egin dela hainbat proiektu aurrera ateratzeko errekurtsioak bideratuz eta beste sail batzuetako aurrekontuekin tendentzia egonkorragoa eraman dela. Hala ere, zorpetzearen bidea ekidi nahi bada, herriko hainbat proiektu estrategiko aurrera ateratzeko bidea hori da: aurrezten joatea eta amaieran esfortzu handiago egitea.

Toki-Erakundeen Arrazionalizazio eta Finantza-Iraunkortasunari buruzko Legearen arauak betetzen jarraitzen da, zuzenean eta etengabe eragiten ditugutenak.

Esan bezala, nahiz eta ez dirudien mailegurik beharko dugunik legealdi honetan, indarrean dagoen lege esparruak, oso zorrotza, behartu egiten du Udala zor publikoa lehenestera beste edozein gasturen aurrean. Egoera honek udaleko diru kutzak kudeatzerako orduan joera bat markatuz..

Foru Fondoaren eboluzioa, haren aurreikuspenak eta likidazioak hurbiletik jarraitzea behartuta dago Udala. Lehengo urtean zuhurtasuna lehenetsi zen aurrekontuak egiterakoan. Aurten, bide berdina jarraitu da. Izan ere, Foru Fondotik datozen aurreikuspenak nahiz eta positiboagoak izan 2018ra begira, likidazioa egin arte aurreikuspenak beti dira aurreikuspen, eta zuhurtziaz jokatzeara arduraz jokatzeara da, izan ere, gehiegizko baikortasun batek ondorio negatiboak izan ditzakeelako.

Bestalde CUPO-arekin lotutako berriak oso garrantzitsu eta positiboak izan dira, eta lortutako akordioak egonkortasunerako aukera ematen du. Hala ere, gai honek ere, zuhurtziaz jokatzeara eskatzen du, izan ere, nahiz eta akordio bat lortu den CUPO-aren inguruan, honek izan dezakeen eragina Udaletan zehaztu gabe dago.

Zuhurtasunak aurrekontu errealista eta arrazoizko batzuk planteatzera eramaten dute, proiektuak lehenetsiz baina aldi berean, bide emanez pentsatutako ildo eta programa estrategikoak gauzatu ahal izatera legealdian, oreka bat bilatuz diru sarreraren eta gastuen artean.

2018ko aurrekontua %2,31 inguru igo da 2017koarekin alderatuta. Igoera nabarmena Foru Fondoaren aurreikuspenetik etorri da. Hala ere, zergetatik jasoko den diruaren aurreikuspena ere igo da, esaterako, obren gaineko zergari dagokionean.

Pertsonal gastuen igoeraren aurreikuspena nabarmena izan da, %3,46koa. Igoera, orokorrean, udal langileen soldata igoera posibleari aurre egiteko fondotik dator batez ere (%1,5 ko igoera proposamena).

Berritasun gisa, 2018 ko aurrekontuen zati bat parte-hartzailea izango da. Horretarako, 250.000 euroko kontu sail bat sortu da herritarrek proposamenak egin ahalbidertzeko. Jasotako proposamen guztiak udal teknikariek aztertu ondoren, balizkoak edo bideragarriak direnak bozketara zuzenduko dira; modu honetan, herritarrek erabaki ahalko dute aurrekontuaren zati bat zertara bideratu.

Udal mailan aurrekontu parte hartzaileen lehen esperientzia izan da eta prozesua aberasgarritzat jo dezakegu. Politikariok zein teknikariek asko dugu oraindik ikasi eta hobetzeko baina prozesu honek bidea zabaltzen du eta hobetzen lagunduko du, izan ere, administrazioaren etorkizuna ezin da irudikatu parte-hartzerik gabe. Naturaltasunez txertatzen joan beharko da parte-hartzea administrazioan eta horrek eskatzen du iraganeko inertziak apurtzea.

Legealdi honetan hainbat prozesu jarri dira abian: Kirolaren mahaia, Gorostizan jolas parkeko estalkiaren parte hartze prozesua, zuhaitza aukeratzea Arrasate pasealekuan, Arbolapeta-San Frantzisko prozesua, horma irudia aukeratzea Gipuzkoa etorbidean eta Otalora lizentziaduna kaleko zati batean, Apredices eraikinaren izen aukeraketa, ideia lehiaketa Biteri eta Itxaropena plazetako parkeak berritzeko, Makatzenako parkea berritzeko aukera ezberdinen arteko bozketa, edota Mugikortasun Plan berria edo hirigintzako aholku kontseilua.

Parte hartzearen kultura baliagarria da ezberdinen artean akordioa lortzeko, baita ere, herritarrek administrazioarekiko duten distantzia txikitzeko. Parte hartze ordenantza bat garatzeko prozesuarekin hasi nahi da eta herrian prozesu parte hartzaileak egiten jarraitzeko 15.000 euroko kontu saila jaso da.

2018KO AURREKONTUAREN IDEIA NAGUSIAK

1) GIZARTE ONGIZATEA

2018ko aurrekontuak herritarren ongizateari dagozkion helburuei lehentasuna ematen jarraituko du; hortaz, mantendu egiten dira gizarte ongizateko prestazioak.

Pertsonak dira lehentasuna eta lan egingo da gizarte kohesioa bermatzeko. Ildo horretatik, laguntza eta programa sozialen mantentzea ezinbestekoa da, eta behar izanez gero horiek handitzeko konpromiso irmoa adierazi nahi da.

Hala ere, programa batzuk indartu egin dira eta beste batzuk sortu. Esaterako, bazterkeria egoeran dauden umeen identifikatze goiztiarra egiteko programa indartu egin da 40.000 eurotan (guztira 260.000 euro). Garrantzitsua da bazterkeria goiztiarra identifikatu ahal izatea benetan egoera kezkarrieci buelta emateko eta kronofikazioak ekiditeko.

Karterako dekretu berriak, Eusko Jaurlaritzak aurreko legealdian onartu zuenak, gizarte zerbitzuen mapa berri bat ezartzen du Gipuzkoan, eta zehazten du zer zerbitzu eman behar dituzten udalek, baina modu amankomunean eta eskualdeka, eremu geografikoetan banatuta.

Helburua, sare publikoaren antolaketa hobetzea da lurralde antolamendu batez bidez, eta eskaintza egokitzea estaldura helburuak finkatuz eta gizarte beharren eboluzioari egokituta, lurralde oreka bat lortuz.

Mapa horrek zehazten du, esaterako, eguneko zentro bat izatea herrian dependentzia baxua duten pertsonentzako. Horretarako 5.000 euroko kontu sail bat sortu da Garibai kaleko 1 zenbakian dagoen lokala egokitu ahal izateko. Helburua, eguneko zentroko zerbitzu hori ematea, eta horretarako, proiektuaren idazketarekin hasi nahi da. .

Elikagaien bankua jartzeko kontu sail berri bat sortu da, 3.300 eurotako, Arrasateko hainbat familien behar sozial hori asetzeko. Horretarako, Harreman elkartearen laguntzarekin batera elikagaien bankua jarriko da martxan.

2017 urtean, Arrasatek herriko diagnosi soziala egin zuen Deustuko Unibertsitatearekin. Diagnosiak hainbat lan lerro jarri ditu mahai gainean eta berauek martxan jartzeko 5.000 euroko kontu saila sortu da.

Iturbide Egoitzari dagokionez, Kabia foru erakundean sartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako plangintzan, 2018ko bigarren seihilekoa zehaztu da data posible bezala. Hortaz, 2018ko aurrekontuak jarraitzen du Iturbide Egoitzaren defizita estaltzeko udalaren diru laguntza erakusten, baina 19.924 eurotako.

2) ENPLEGUA

Gure konpromisoa enpleguarekin guztiz lehenetsuzkoa da. Horregatik aurreko apustu garrantzitsua egin da eta %9,37 igo da Departamentu honetara bideratzen den aurrekontua.

Langabeak kontratatuzko programarekin jarraitzen da eta ahalegin berezi bat egin da gazteei bideratutako programarekin.

Proposamena da, 40 gazte lan munduan txertatzeko proiektu berritzaile bat abiaraztea, Gaztelan proiektua eta honi, 45.000 eurotako partida bideratu zaio. Enpresekin elkarlanean, formazioa eta praktikak eskaintzeko beste plan berezi bat martxan jartzeko 50.000 euroko kontu sail bat sortu da, Laneratzeko plan berezia, gutxienez beste 25 langabetu lan mundura bideratzeko.

Era berean, Arrasatera ezarpen ekonomiko berriak erakartzeko ekintzak ahalbidetzeko 10.000 euro ezarri dira edota lehen sektoreari lotutako enplegua sustatzeko (5.000 euro) bezalako egitasmoak orain arteko egitasmoekin uztartuko dira, esaterako, langabetuak kontratatuzko laguntza (160.250 euro) .

LANBIDE-rekin eskumen inguruko gatazka medio, ezin denez gazteentzat beka programa argitaratu, beste formatu baten baitan, gazteei lan merkatuan sartzen lagundu ahal izateko Ikasketa amaierako proiektuak eta lanpostuetarako behar den prestakuntzaren inguruan sortutako programa mantentzen da (70.000 euro).

Jarraituko da kolaborazio publiko-pribatua lan egiten, ardatz duenak enplegua udalerriko hainbat eragilerekin lantzea , hala nola Mondragon Unibertsitatearekin batera antolatuko da LANBAI enplegu azoka (20.000 euro), eta SAIOLAN-ekin enpleguari buruzko lankidetzaz

hitzarmenak jarraituko du (20.000 euro). Kongresuen jarduerarako 10.000 euroko kontu saila mantendu da Gizarte Ekonomiako Mundu Foroa Bilbon eta Arrasaten ospatuko den aurreikuspenarekin.

3) INBERTSIOAK ETA MUGIKORTASUNA:

Inbertsioek erakusten dute zer proiektu estrategiko egingo diren legealdian, izan ere, kontu sail gehienak urte anitzekoak izan behar dira.

Hala, Mugikortasunarekin lotuta, 105.000 euroko kontu sail bat ezarri da Makatzenako igogailuaren proiektua exekutatzeko, nahiz eta proiektuak bere osotasunean duen kostua 1.000.000 eurotik gorakoa izan. Auzora igotzeko irisgarritasuna helburu duen proiektua izanik, estrategikoa da, honek ahalbideratuko bai du herritarrek autoaren gainetik aukera jasangarriago bat izatea.

Era berean, Mugikortasun plan berria onartzekoa da eta horrekin lotuta, Etxaluze eje eremua herritartzeko proiektua da, Ekoboulevard proiektua alegia (40.000 euro), eta xede duena oinezkoei lehentasuna ematea eta bidegorriaren jarraipena.

Garraio publikoa erabiltzen duten herritarren erosotasuna hobetzeko Markesina berriak jartzeko 12.000 euroko kontu saila bideratu da, izan ere, oraindik badaude geltoki estali gabeak, eta euria egiten duenean ez da eroso garraio publikoaren zain egotea.

Oinezkoak jarraituko du protagonista izaten. Aurrekontuak badu 45.000 euroko kontu saila esparru publikoak urbanizatzeko, asmoa izanik Uribarri auzoko espaloiak konpontzea. Era berean, Gipuzkoa Etorbideko espaloiak konpontzeko 50.000 euro bideratzen dira eta Santa Teresa-Agerre espaloia konpontzeko 1.000 euro.

Jarraituko da auzoetan haur parkeak hobetzen: 120.000 euro jarri dira Biteri-Garibai parkea berritzeko, beste 140.000 euro Itxaropenan jolasparke berri bat egiteko, estalpea duena. Musakolako Nao Santiago parkea eta San andreseko Kurtze Txiki parkeak berritzeko ere kontu saila jarri da, 125.000 eurotako.

Halaber, 50.000 euroko kontu sail bat jaso da Anboto kalea urbanizatzeko.

Ondare publikoa berreskuratze aldera Garagartzako Auzo-etxearen teilatua konpontzeko 65.000 euro bideratu dira.

4) EUSKARA

Euskarari dagokionean, 2017an hasi zen Udala euskara eragileekin batera Kluster Soziolinguistikoaren laguntzarekin hizkuntza aktibazioaren inguruan lanketa bat egiten.

Euskalgintza soziala eta instituzionala apalaldian murgildua zegoenaren sentsazioa jaso zen eragileekin egindako bileran. Hortik abiatuta, herrietan euskararen erabilera sustatzeko hausnarketa prozesu bat martxan jartzea erabaki zen. Hautsak astindu eta estrukturak aldatzeko beharra ikusirik, modu eraginkor eta aktiboago batean lan egiteko moduak aztertzea egoki ikusi zen eta horretarako

beharrezkoa da herri mailan elkarrekin jarduteko moduak aztertzea eta probatzea, lan egiteko modu berriak eraikitzea, gakoak identifikatzea eta metodologia sortzea. Metodologia sortze prozesu horretan egonik, 6.000 euroko kontu sail berri bat sortu da, metodologia hori probatu, esku hartzeak gauzatu eta ekintzak burutzeko.

Errealitatean eragiteko asmoz abiatzen den antolakuntza prozesua, elkarlan irekia eta malgua bilatzen duen prozesua da.

Horrez gain, Kulturobaren proiektuen exekuzioa hasiko da 2018 urtean eta udal euskaltegiak lokal egoki baten eskariari erantzungo dion egoitza berria izango du Euskal Kultura ardatz duten beste eragileekin batera.

Barrura begira, barne antolamendu berriarekin hasita gaude. Euskaltegiko langile profesional eta kualifikatuak lagunduta, sinergiak sortu dira eta hainbat esparruetan, emaitza positiboak eta hobekuntza nabarmenak eman dira.

5) BERDINTASUNA

2006an Arrasateko Udalak “Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Plana” onartu zuen, hasierako apustua 2006-2010 plangintza izatea erabaki bazen ere 2013ra arte luzatzea erabaki zen 2012an.

Urte guzti hauetan Arrasateko Berdintasun Saitetik aipatutako planean jasotako helburu zein jarduera asko burutu badira ere, planaren ebaluazio eta dagokion jarraipena egiteko beharrean aurkitzen da Udala. Gainera, Biolentzia Matxistaren aurrean administrazio publikoek, udalak barne, duten erantzukizuna nabarmena da. Horregatik 2017an Biolentzia matxistaren aurkako plana berriaz hasi gara eta bertatik aterako diren ekintzak egiteko partida berria sortuko dugu 2018ko aurrekontuetan (20.000 euro).

Gaiarekin jarraituz, komunikazio parekidea lantzea Arrasateko Udalaren helburuetariko bat da. Instituzioek zein hedabideek kanpora begira komunikatzen dituzten edukiek genero trataera egokia behar dute, alde batetik, hiritarrek eskatzen dutelako eta, bestaldetik, udalak genero ikuspegiaren zeharlerrokotasuna bermatu nahi duelako. Gizartearen erdia diren emakumeak hartzaile aktiboak dira: beren errealitatea eta beren kezka asetuko dituen informazioa merezi dute. Halere, zaila izan ohi da eguneroko prozedura eta egituretan genero ikuspegia txertatzea: urte askotan zehar egitura hauek molde jakin batekin funtzionatu dute eta sarritan, aldatzeko borondatea ez da nahikoa izaten. Horrelakoetan, adituen laguntza ezinbestekoa da. Horregatik, 2018ko aurrekontuetan jaso da 7.000 euroko kontu saila Udalean genero ikuspegia kontutan izango duen komunikazioaren aholkularitza bideratzeko.

6) INGURUMENA

2018rako planteatzen den ekintza nagusienetako ingurumenarekin lotura zuzena duena, Antoñan hezegune bat sortzearena da.

Irudiko lur eremuan, anfibio, landare eta hegazti autoktonoak hazteko gune bat sortzeko proiektua da. Anporretatik doan errekatxoa albotik igarotzen dela baliatuta, zingira edo putzu bat sortu nahi da, 20 eta 30 zentimetro arteko sakonerarekin, espezie autoktonoentzako leku bat sortuz. Horretarako 60.000 euroko kontu sail bat sortzea erabaki da.

7) MERKATARITZA, TURISMOA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Merkataritzak eta turismoak sail propioa dute legealdi honetan. Turismoa plana martxan da eta bertatik eratorritako linea bat garatzeko kontu sail berri bat ireki da, Turismo kooperatiboaren ardatza jorratzeko 10.000 euroko kontu saila sortuz.

Era berean teknologia berrien kontu sailak 15.000 euro jasotzen ditu herritarrei herriarekin zerikusi duten APPak garatu eta zabaltzeko eta 20.000 euroko kontu saila Turismo ekintzak egiteko. Merkataritza jarduerak ahalbideratzeko 18.000 euro jaso dira, batez ere udala jorratzen ari den merkataritza plan estrategikoaren ekintzak abian jartzeko.

Jarraituko da herriko baserritarrei laguntzen, eta egitasmoa erakargarriak antolatzen herritarrek herrian bertan kontsumitu dezaten. Baita ere, herriko merkatarri elkartearekin elkarlanean, sinatzen den hitzarmenaz baliaturik herriko merkatariek herrian ere ekintzak egin ditzaten ahalbideratzeko 31.000 euroko aurrekontua jaso da.

Arrasateko herritarrek herrian erosi dezaten bultzatzeko eta batez ere aste bukaeratan herri bertako komertzioa bultzatzeko ekintzak egiteko kontu sailak sortu dira. Hildo honetatik doaz gabonetako argiak jartzeko kontu saila (22.000 euro) edo Gabonetako izotz pista jartzearena (26.000 euro).

8) KIROLA ETA GAZTERIA

Kirolari garrantzia eman zaio legealdi honetan. 2017an Aurkapeko gimnasio berria ireki bada, 2018ko aurrekontuak jasotzen du etorkizunera begira kiroldegi berri bat egiteko aurreproiektuarentzat 25.000 euroko kontu saila.

Era berena, kirol eraikuntzen garbitasuna hobetu nahi da eta horregatik Iturripeko garbiketa egin eta Musakolako Kiroldegikoa hobetzeko 40.000 euro gehitu dira 2018ko aurrekontuan.

2018ko aurreikuspenen barruan ere txertatu dezakegu Iturripeko lurraren berriztatzea edota Mojategiko belar artifizialaren aldaketa. Horretarako 200.000 euroko inbertsioetarako kontu saila sortu da.

9) GAZTERIA ETA HEZKUNTZA

2018 aurrekontuetan esfortzu berezia egin nahi izan da gazteei begira.

Horrela, gazteei lotuta Erasmus + proiektua abiaraziko da Arrasateko gazteak kanpora eta

kanpokoak bertara etor daitezzen sustatu eta laguntzeko. Horretarako 15.000 euroko partida bat bideratu da. Gazteen emantzipazio aukerak areagotzeko alokairuetan Udalak eskaintzen dituen diru laguntza kontu saila bikoiztu egin da (30.000 euro izatetik 60.000 euro izatera) ahalik eta gazte gehien izan daitezzen laguntza horien onuradun.

Azterketa eta ikerketa askok erakusten dute haurren eta gazteen ongizatea sustatzen inbertitzen dena eraginkorra dela pobrezia eta desberdintasuna gutxitzeko etorkizunean eta horregatik aurreko urtean hartutako erabakiaren jarraitu da, kale hezitzaileen zerbitzuaren egonkortasuna ahalbideratzeko. Kontu saila 116.000 eurokoa izanik.

Hezkuntzan eragitea garrantzitsua izanik, eraikinetan inbertsioak egiteko diru kopurua handitu egin da 20.000 eurotan, 100.000 eurotako izanik azken kopurua.

10) KULTURA

Legealdiko izar proiektuak, Kulturola eta Aprendices eraikinak kontutan hartzen dituenak, protagonista izaten jarraitzen dute 2018 ko aurrekontuetan. 500.000 euroko kontu sail bat zuzendu da Kulturola proiektura, hau da, Erlojuaren Eraikinaren birgaitze lanetara eta 1.230.000 euro Juan Arzamendi Musika Etxea egiteko proiektura. Kultura eta musikari egoitza propio eta txukunak emateko asmoarekin eskualdean ere erreferente kultural izango den proiektua materializatzen hasiko da 2018an. .

Apustua estrategikoa da. Legealdi honetan tamaina handieneko proiektua izango da bi eraikin horiek birgaitzea, erantzun egoki bat emateko kultura jarduera osoari, une honetan egoera eskasean baitago.

Arrasateko kulturarekin eta jaiekin lotutako bi kontu sail berri ere jasotzen ditu kultura sailak 2018ra begira.

Erraldoi eta Kilikien konpartsak 30 urte bete zituen 2015an eta aurten, konpartsa osatzen duten hainbat elementuen konponketa eta berriztatzea egiteko kontu sail bat sortu da 7.800 eurokoa.

Era berean, Arrasateko Danborradaren eskari historikoari erantzuna emateko 15.000 eurotako kontu sail bat sortu da, Danborradako abestiekin disko bat grabatzeko. Danborrada egunean Arrasateko bandak ez dauka denbora materialik San Juan egunean ospatzen diren bi ekitaldi nagusietan parte hartzeko: Errementari dantza eta nagusien Danborrada. Horregatik, disko bat grabatu nahi da denbora material falta horri irtenbide bat topatzeko asmoarekin.

11) SEGURTASUNA

Herritarren segurtasuna garrantzitsua izanik, 2017an hasitako bi egitasmoa nabarmendu daitezke, alde batetik, autoen eta garraio publikoaren abiadura moteltzeko radarrak, eta bestetik, Lanako biribilgunea egitearen egitasmoa.

2018ko aurrekontuei begira, radarretan zinemometroa alokatzeko 71.000 euroko kontu saila jaso da, berauek martxan jartzea ahalbideratuko dituen.

Aipatu eta gero 2018ko aurrekontuaren alderdi kualitatibo esanguratsuenak, zenbatekoak agertuko ditugu aurtengo ekitaldirako aurreikusiak, bai udalarena bai Iturbide egoitza erakunde autonomoarena ere; hona hemen horiek:

Udalaren aurrekontua	32.247.058,18 euro
Iturbide egoitzaren aurrekontua	3.442.624,28 euro

Aurrekontu orokor finkatua edo bi aurrekontuak batuta, barne transferentziak kenduta (defizita estaltzeko ekarpenak, eta Udalaren fakturazioak, erakunde autonomoari ur eta zabor zerbitzuak egiteagatik) kopuru hauxe dugu, **35.649.758,18 euro**.

2018ko zenbatekoak alderatuz gero 2017rako onartutako aurrekontuaren kopuruekin, koadro hau dugu:

ERAKUND EA	AURREK. 2018	AURREK. 2017	ALDAERA	▲ 2018/2017
Udala	32.247,06	31.520,47	726,59	2,31%
Iturbide	3.442,63	3.401,53	41,1	1,21%
Aurrek. orok. (kopuruak mila euroan)	35.649,76	34.883,30	766,4621,46	2,19%

Kopuruak aztertutik, ikusten dugu 2018ko aurrekontuaren proiektuaren aurreikuspenak **igo egin duela apur bat iazko kopuruaren aldean**. Igoera hori izan da nagusiki kostuak eguneratu direlako (soldatak berrikustea eta sinatutako kontratuetakozko prezioak berrikustea), zeintzuk, era berean, finantzatu behar izan diren diru sarrerekin, fiskalitatea eta partizipazioa foru funtsen bitartez, gehien bat.

Jarraian, aztertuko ditugu, xehetasun maila handiago batez, udalaren aurrekontuaren gastuen eta diru sarreren kontu sail nagusiak, eta ITURBIDE erakunde autonomoaren aurrekontuak memorian datoz aztertutik erakundeak berak idatzita, agiri honetan bertan atal berezi gisa agertzen dena.

Hasiko gara Arrasateko Udalaren aurrekontua aztertzen gastuen ataletik.

GASTUEN AURREKONTUA 2018

2018ko ekitaldirako pentsatutako zenbatekoa guztira da 32.247.058,18 euro, eta % 2,31ko igoera du iazkoaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2018ko aurrekontuak kapituluz kapitulua, aurreko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

KONPARAZIO KOADROA, 2018KO AURREK. - 2017KO HASIER. AURREK.

Kapitulua	AURRE K. 2018	% G/B	AURRE K. 2017	% G/B	Aldea	▲18/17
I Pertsonal gastuak	11.028,3	34,20%	10.659,9	33,82%	368,4	3,46%
II Ondasunak eta Zerbitzuak	10.663,2	33,06%	10.492,4	33,29%	170,8	1,63%
III Interesak	15,8	0,05%	20,1	0,06%	-4,3	-21,39%
IV Transfer. arruntak	4.804	14,90%	4.715,9	14,96%	88,1	1,87%
V Kreditu globala	325	1,01%	50	0,16%	275	550%
VI Inbertsioak	3.930,8	12,19%	4.041,3	12,82%	-110,5	-2,73%
VII Kapital Transf.	983,6	3,05%	1.049,1	3,33%	-65,5	-6,24%
VIII Finan. Akt. Aldak.	180	0,56%	180	0,57%	0	0
IX Maileguen amortizazioa	316,4	0,98%	311,7	0,99%	4,7	1,51%
GUZTIRA	32.247, 1	100%	31.520, 4	100%	726,7	2,31%

(Kopuruak mila euroan adieraziak)

Koadro hau aztertu, eta ikusiko dugu, portzentajeetan, udalaren gastu globalari buruz, 2018ko aurrekontuak ia ez duela aldaketa esanguratsurik 2017ko urtearen aldean, eragiketa arruntan eta kapital eragiketen proportzioari dagokionez. Aipatu genezake pertsonal gastuen kapituluaren inportantziaren igoera bat (+0,38 ehunekoetan) eta kreditu globalerako kapituluarena (+0,85 ehunekoetan), zeinaren jatorria aipatua dagoen memorian (parte-hartze prozesua 2018an exekutatu beharreko proiektuei eta ekimenei buruz, gaurko egunean aukeratzeke eta zehazteke dagoena). Igoera txiki horiek konpentsatzen dira kapital eragiketen inportantzia murriztuta (-0,91 ehunekoetan) eta II. kap.-ondasunen erosketa eta zerbitzu arruntak gutxituta (-0,23 ehunekoetan), eta geratzen da aldaketa barik finantza zorraren inportantzia (interesak + amortizazioak, zeina aurrekontuko gastu osoaren %1,03 den).

Azken batean, nahiz eta kontu sail mailan egon daitezkeen alde txiki batzuk, aipagarrienak direnak, 2018ko aurrekontuaren egiturak, kapitulu mailan, apenas erakusten du aldaketa aipagarririk 2017ko ekitaldiaren aldean.

Laburtzeko, hona hemen 100 eurotik zenbat eta zertan gastatuko duen udalak 2018an:

- **34,20 €** erabiliko dira **pertsonal gastuei** aurre egiteko, eta hor sartzen dira udalkide liberatuen ordainketak, haien egitekoak betetzeko udalean.

- **33,06 €** behar dugu gastu arruntei erantzuteko, **udal zerbitzuen funtzionamendutik** sortuak.

- **1,03 €** dira banketxeekin hartutako konpromisoak betetzeko (**maileguen interesak eta amortizazioak**).

- **14,90 €** dira **transferentzia arruntak edo diru laguntzak** finantzatzeko; horietatik **8,1** euro dira zerbitzu mankomunatuaren kuotak eta Iturbide Egoitzaren defizita (berez udal zerbitzuak dira).


- **12,19 €** dira **inbertsioen zuzeneko exekuzioa** finantzatzeko.

- **3,05 €** dira beste administrazio edo **erakunde batzuek** egindako **inbertsioak diruz laguntzeko edo elkarrekin finantzatzeko**.


- **0,56 €** erabiltzen da finantza aktiboak erosteko, hala nola **langileei aurrerakin itzulgarriak** emateko (diru sarreren kopuru berdina) eta **Garaia S.Coop.ren kapitalari ekarpena egiteko**.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zer eboluzio duen 2018ko gastuen aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2017ko aurrekontuaren aldean, baita ere, 2018ko gastuaren portzentaje banaketa, sailkapen ekonomikoaren arabera edo, beste era batera esanda, gastuaren izaerari jarraituz.

2017 ETA 2018KO AURREKONTUAREN GASTUAK ALDERATZEA KAPITULUZ-KAPITULU



GASTUA BANATZEA KAPITULUZ-KAPITULU - 2018KO AURREKONTUA



Orain aipatuko ditugu gastuen aldaera nagusiak eta 2018ko aurrekontuaren berritasun aipagarrienak, 2017ko ekitaldiko kopuruaren aldean, sailkapen ekonomikoaren edo gastuaren izaeraren arabera.

LEHEN KAPITULUA – LANGILEEN GASTUAK - 11.028.284.42 euro

3,46% igoera du, 2017 aurrekontuaren kopuruaren aldean.

Une honetan tramitazio fasean daude Estatuko 2018 ekitaldirako aurrekontu orokorrak (oinarrizko legeriaren izaerarekin, derrigorrean betetzekoa, azken urteotan Estatua ibili da erregulatzen, bere aurrekontu orokorren bidez, soldaten berrikuspen muga baimenduak), ez baitago norabide zehatzik 2018 aurreikuspenak kalkulatzeko eta, horren ondorioz, udal aurrekontuetarako kapitulu honetan banakako soldata kostuen estimazioak egin dira, sailez sail, 2017 oraingo plantilaren arabera, igoerarik gabeko aurreikuspenekin.

Edozelan ere, gaurko egunez dugun informazioan oinarrituta (EJren aurrekontuen proiektua eta, halaber, Ogasun ministerioko arduradunek adierazitakoak, sindikatuekin negoziazioen testuinguruan), espektatiba bat/adierazpen bat dago agian soldata berrikusteari buruz, zeinak ekarri dezakeen gutxi gorabehera gehitzea % 1,5, 2017ko ordainsariei buruz. Hortaz, soldata berrikustearen kontingentzia bat betetzeko, sartu da kontu sail bat, funts edo erreserba izaera duena, izango dena alde negoziatzaileek (erakundeen ordezkariak eta ordezkariak sindikala) lortu ditzaketan akordioak finantzatzeko. Funts horren zenbatekoa da gutxi gorabehera 2017ko soldata masaren % 1,5, borobilduta, 160.000 euroko balioa.

Soldata berrikustearen kontingentzia funts horretaz gain, badira beste faktore batzuk azaltzen dutenak zergatik handitzen den kapitulu hau, eta nagusiak dira hauek:

- Derrigorrezko hasierako forakuntza dela eta, beharrezkoa da udaltzaingoan langile berriekin beteta dauden plazak betetzeko bitarteko langileekin, legez ezarrita dagoen prestakuntza aldian (horrek dakar bikoiztea pertsona kontratatuak – 6 udaltzain sei hilean).
- Udal kide baten liberazioari buruzko erabakia, oposizioko udal talde batekoa, erabakia osoko bilkurak 2017/10/03an, 2/2016 Legean, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena, xedatutakoa betetzeko.
- Diru kopuru handiagoa enplegua sustatzeko programetarako, 2017ko aurrekontuko kopuruari buruz.

Lanpostuen zerrendari dagokionez, albora utzi gabe pertsonal dedikazioak berriro esleitu izana hainbat sail eta batzordetara, udal plantilan ez da amortizatzen lanposturik eta ez da sortzen lanpostu berri egonkorrik.

BIGARREN KAPITULUA - ONDASUN ETA ZERBITZU ARRUNTAK EROSTEA - 10.663.150,00 euro

Igotzen da % 1,63 2017ko aurrekontuaren aldean; gastu handiagoa, 170,7 mila euroko zenbatekoa. Konparazioa egiten badugu 2017an indarrean egon zen aurrekontuarekin (hasieran onartutako agiria, gehi ekitaldian sartutako kreditu aldaketak), gertatzen da 2018ko kopuruek

dakartela aldaketa handiagoa, zehazki % 1,99. Hasieran onartutako aurrekontuaren aldean orain indarrean dagoen zenbateko txikiagoa gertatu da hainbat kontu sailengatik, zeintzuk ezartzea 2017an atzeratu den edo aldatu egin den, besteak beste, zinemometroak, Uarkapeko kudeaketa integrala, bide garbiketaren zerbitzuaren kontratu berria eta abar.

Termino kuantitatiboetan, igoera izan da arrazoi hauengatik:

- **Kontu sail berriak, aurreko aurrekontuen aldean**, hala nola erraldoien konpartsaren konponketak, danborradaren disko bat grabatzea, programa bat egitea laguntza berezia emateko bazterkeria kasu arinei, azterketa bat egitea langilearen prestakuntza beharrak diagnostikatzeko, aholkularitza zerbitzuen azterketa bat abian jartzeko enplegu plan bat, diru ekarpen bat egitea proiektu bat egiteko, jende gazteak lan merkatuan modu iraunkorrean integratzeko, Gaztelan izeneko proiektuaren bidez (hor sartzen da udal ekarpenaren zati estimatua bakarrik, udalak finantzatzekoari buruzko balioespena, plana onartzen bada, Ogasun ministerioaren eta administrazio publikoen artean, eta diru laguntzak iritsi daitezke proiektuaren kostu osoaren % 100 izatera), kontu saila izurriteen aurkako jardueretarako, Erasmus programaren gastuak, kontu sail bat indarkeria matxistaren aurkako planetik datozen jardun zehatz batzuk finantzatzeko, baita ere, Euskara batzordearen ekintzen kontu saila "kluster euskara" izeneko proiektuan, zeintzuk diren guztira 188,8 mila euro.
- **Diru kopuruak gehitzea** Memoriaren prozesuko kontu sailetarako, zerbitzu azpikontratatuak babesgabetasun egoerei laguntza emateko, lanen arriskuen prebentzioaren kontu saila, kontsurtzioaren fakturazioak edateko ura hornitzeagatik Urkulutik, ludoteka zerbitzua eta gazte txokoen zerbitzua, Musakolan/Mojategin kirol instalazioen garbiketa zerbitzuak eta kontratua Uarkapeko kudeaketa integrala egiteko, zeintzuk diren guztira 209,6 mila euro.

2017koaren aldean, gutxitu ere egin dira kontusail batzuk eta baten bat kendu egin da, behintzat kontu sail espezifikiko moduan, eta aipatu daitezke inportanteen artean hauek:

- Izen korporatiboko lanak, TAO zerbitzuaren kontratua, Erdi Aroko azoka, bide garbiketaren zerbitzuak – aukerakoak barne, garraio publikoaren zerbitzua, zeintzuk diren guztira 190,5 mila euro.

Oro har, 2018an mantentzen dira iazko kontu sailak aldaketa handirik gabe, nahiz eta "borondatezko gastu" izaerakoak diren batzuetan aplikatu behar izan den murrizketa irizpide bat, egokitu eta orekatzeko lehen aipatu diren kostu gehitzeak.

Azkenik, adierazi behar da, lan premisa moduan, kapitulu honen aurrekontua egiteko, irizpide bat erabili dela ez gehitzeko borondatezko gastua eta zerbitzuen oraingo eskaintza mantentzea. Horrek esan nahi du erregela horri buruz (borontatezko gastua ez gehitzea) sartutako salbuespenek erantzuten diotela izaera berezi bati eta oinarritzen direla lehentasunen balorazio batean.

HIRUGARREN KAPITULUA - MAILEGUEN INTERESAK - 15.842,06 euro

Gutxitu egin da % 21,39, 2017ko aurrekontuaren aldean.

Kapitulu hau behin eta berriro murriztearen arrazoia, udal gastua banatzearena legealdian, bikoitza da:


- Batetik, 2011-2017 aldian interes tipoa egonkortu izana, historikoki baxuak diren neurrietan, izan ere, hiruhileko euriborra izan zen % 1,4koa 2011ko bukaera aldera, eta orain interes tipo negatiboa, % -0,329koa, 2017ko azaroaren 22an. Izan ere, 2016/2017 aldi osoan, interes tipoen erreferentzia hori negatiboa izan da, ia aldaketa barik, eta horrek adierazten du erreferentzia horren bizi aldi osoko maila baxuenean gaudela (1991tik 1999 arte erabilitako erreferentzia zen MIBOR, eta 2000tik aurrera EURIBOR erreferentzia).

- Finantza zorraren zenbatekoa murriztu izana, maileguen urteko amortizazioen ondorioz, zorpetze berririk gabe ez 2017an ez, ziurrenik 2018an (nahiz eta sartu aurrekontuan mailegu berrien aurreikuspen bat gastuen eta diru sarreraren koadratzeko), zorraren zenbateko batekin 2018-12-31n, 1.009.606,64 eurokoa (sartzen dira Eusko Jaurlaritzaren 2 aurrerakin itzulgarri interesik gabe, zenbatekoa 34.239,59 euro), 1990-2018 aldiko minimo historikoa.

2018ko aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, ikusita oraingo erreferentziak, erabili dugu erreferentzia zehur bat, zehazki % 0,15eko interes tipo bat, eta gero horri gehitu behar zaio diferentziala, aplikatu dakiokiena kontratu bakoitzari. Indarrean dagoen mailegu bakarra, ez amortizatua, ezarrita dago tipo aldakorrean, hiruhileko euribor erreferentziarekin gehi 1,2ko diferentzial bat (komeni da berriro finantzatzea edo baldintzak negoziatzea?). Kontuan hartzen badugu azken erreferentzia ezaguna, 2017/11/22an, % -0,329 dela, aurrekontu aurreikuspenak % 0,48 inguruko koltxoia du interes tipoa, diruaren oraingo prezioaren aldean / euribor interesa.

Honekin batera doan grafikoan ikusi dezakegu zer eboluzio izan duen hiruhileko EURIBOR erreferentziak (2000. urtera arte erreferentzia da MIBOR) 1991-2017ko azaroaren aldian, zeinetan egiaztatuko dugun maila baxuetan egonkortu dela 2009tik aurrera, are gehiago gutxitua azken 6 urteotan.

HIRUHILEKO EURIBOR ERREFERENTZIAK 1991-2017



(*) 1991-1999 aldiko datuak dagozkie hiruhileko MIBOR erreferentziari.

Bestalde, 2017ko ekitaldian egiaztatu da nabarmen hobetu dela banku entitateek eskainitako finantza baldintzei buruz, mailegu berriak sinatze aldera (mailegu eskaintzek daukate "euribor+0,20 puntuko diferentzialak" edo erreferentzia hori baino baldintza hobekak).

Beste elementua, murrizten duena mailegu bat lortzea udalek, lege-esparrutik dator, zorpetzeari buruz, non, egia bada ere motel baina apurka-apurka malgutzen ari dela estatuaren aldetik, egon daude zailtasunak modu arrazoituan kudeatzeko ezarritako mugak, ikusita magnitude erregulatuen artean zer lotura dagoen, zeintzuk eragiten dioten zorrari ez ezik egonkortasunari eta gastu erregelari.

Azken batean, Arrasateko Udalak, zorpetzeari dagokionez, egoera oso ona badu ere, eta, hortaz, ondo badago ere mailegu berriak kontratatze (beharrezkoak izanez gero) inbertsioak finantzatzeko aldera, nagusiki 2019ari begira (Musika Eskola, Kultura eta beste batzuk), ondorioztatu behar dugu lege esparruak ez dituela "erazten" operazio horiek. Hori guztia, nahiz eta Gipuzkoan onartu diren salbuespen jakin batzuk aurrekontu egonkortasuna betetzeko, kasuak direnean udalek ez dutela gainditzen zor portzentaje jakin bat (% 70 diru sarrera arruntei buruz) eta lotua baldintza jakin batzuetara, ahalbideratzen dituzte egoera batzuk, non zabaldu daitezkeen 3 urtera begira (urte bateko epearen orde) aurrekontu egonkortasuna lortzea, bete ez izana badator urte anitzeko inbertsio estrategikoen proiektuak finantzatzetik.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK - 4.803.966,28 euro.

Handitu da % 1,87, 2017ko aurrekontu kopuruaren aldean.

Kapitulu honen alderdi aipagarriak dira:

- Ikusita zer fasetan dagoen gaur egun Debagoieneko Mankomunitatearen 2018ko aurrekontua, oso hasierako fasean eta hainbat gai erabakitzeke egonik, intzidentzia esanguratsua ekitaldi berrian finantzatu beharreko diru kopuruetan dutenak, erabaki da udal aurrekontuan jasotzea 2017ko kuoten antzeko kopuruak, apur bat gorantz borobilduak. Hortaz, egonez gero aldaketa inportanterik Mankomunitatean onartzen den agirian, udal aurrekontuan jasotako kopuruei buruz, horiek bideratu beharko dira kreditu aldaketez eta, printzipioz, ulertzen da Arrasateko Udalean, 2017ko itxieratik etorriak, bitartekoak agertu daitezkeela, zailtasun handi barik, aurrekontu behar gehigarri horiek finantzatu ahal izateko. Aurrekontuko kuota arruntak, zerbitzu mankomunatueterako, 2.290.900 euro da, eta % 2,6ko igoera dakar 2017an aurrekontuan jasotako kopuruaren aldean.

- Jarraitzen dugu **defizit oso txikiarekin**, aurreikusia **Iturbide egoitza** erakunde autonomoan (19,9 mila euro), bereziki datozenak finantza konpromiso gehigarrietatik, beregain hartuak diputazioak aldi iragankorrean, udal egoitzak integratu arte “KABIA” erakundearen.

- Sartu dira **2 kontu sail berri**, izaera izendunekoak, **Larragain** elkartearantz eta **Mondraitz** erakundearentzat, finantzatzeko Kurtzetxikiren kudeaketa eta ustiatzearen gastuak eta finantzatzeko Udaltx mendi igoeraren proba, hurrenez hurren 20.000 euro y 3.500 euro (gutxitzen da ekintza berezietarako laguntzen diru kopurutik), eta, baita ere, programa berri bat sartu da, kudeatzekoa norgehiagoka erregimenean, **diru laguntzak toki merkataritzako ekintza batzuetarako**, 16.200 euroko zenbatekoa.

- Enplegu sailaren programen diru kopuruak mantendu egiten dira, Lanbide-rekin argitu eta gero eskumenak gaiari buruz, zeinak zaildu egiten zuen programak martxan jartzea, zehazki **laguntza programak langabeak kontratatzeko, langabeen prestakuntza gastuetarako, lanpostu berriak sortzea, tituludun berrien bekak enpresetan praktikak egiteko eta/edo karrera bukaerako proiektuetarako, guztira 295.250 euro**, baita ere, programa bat “**gazteentzat etxebizitzaren alokairu gastuak finantzatzeko**”, **60 mila euroko diru kopuru batekin** (2017ko gastu errealean oinarrituta, hasieran onartutako 2017ko aurrekontuan jarri baitziren 30 mila euro).

- **Kendu** egin da **horma irudiak pintatzeko** jardunak **diruz laguntzeko kontu saila**, eta orain jardun horiek egingo ditu udalak berak zuzenean, herriko hainbat entitaterekin eta elkarrekin elkarlanean, ikusita zein zaila zen burutzea pentsatutako jardunak, batez ere, erantzukizun ikuspegi batetik, istripuren bat izanez gero.

- Diru kopuru beraz mantentzen dira kontu sailak: **Gizarte Larrialdietarako Laguntza programak finantzatzeko eta Larrialdietarako laguntzen berezko funtsa finantzatzeko**, zenbatekoak hurrenez hurren, 300.000 euro eta 20.000 euro, baina aurreko ekitaldietan bezala, horien **diru kopuruak gehitzeko konpromisoarekin**, baldin eta laguntzen eskarien eboluzioak hala eskatuz gero, ikusita zer **lehentasun** markatzen dion

gobernu taldeak laguntza behar duten **babes gutxien duten herritarren beharrei erantzuteko**.

- **Diru kopuruak mantentzen dira diru laguntza izendunak emateko, esleituta daudenak Arrasate Musikali, 325 mila euro, Goiena – prentsa eta irratia, 195.703 euro.**

- Memoriaren adierazi bezala, orokortasunez, esandako salbuespenak salbuespen, jarraitzen dugu diru laguntza programekin, bai eta 2017ko aurrekontuan zeuden izaera nominatiboko diru laguntzekin, iazkoaren antzeko diru kopuruekin. Edozelan ere, kopuru handia delako, komeni da gogoratzea **aurrekontuko baliabideek**, udal batzordeen eta udal sailen diru laguntzen programak finantzatzeko direnak (sartu barik gizarte larrialdietako laguntzak, nagusiki EJK finantzuak), **1,87 milioi euro egiten dutela** (□ % 6).

- Halaber, nahiz eta aldatu ez **udal talde politikoei ordaindu beharreko kopuruak** (taldeko, zinegotzi kopuruko eta bileretara joateagatik hainbat, aurrekontuen exekuzio oinarrien 18. artikuluan ezarritako arauen arabera), legealdi honetan onartutakoei dagokienez (Pleno de fecha 2015/07/13ko osoko bilkura, gero aldatu barik), kontu sailaren diru kopurua mantentzen da 220.000 euroan.

BOSGARREN KAPITULUA – KREDITU GLOBALA ETA USTEKABEAK - 325.000 EURO

2015era arte, aurrekontuetan jasoia bigarren kapituluan, 86/2015 Foru Dekretuaren ondorioz, Gipuzkoako toki erakundeen kontabilitatearen arau esparruari buruzkoa, sortu da kapitulu berri bat, “Kreditu Globala eta beste ustekabe batzuk” izenekoa, zeinaren bidez aukera dagoen ekitaldian egon daitezkeen beharrak finantzatzeko, hasieran onartutako aurrekontuetan aurreikusi gabeko (edo nahiko dotazio ezarekin) gastuetarako.

Era berean, kapitulu honetan kontu sail bi jaso dira:

- Orokorra da ustekabeei erantzuteko edo egokitze behar txikiei erantzuteko, zeinak izango duen 75.000 euro, 2017ko aurrekontuan onartutako 50.000 euroaren aldean.

- Espezifikoa, aurrekontuen partizipazio prozesuan aukeratutako proiektuei erantzuteko dena, martxan jarriak lehenengoz udalean, hala pentsatu eta adierazi baitzen 2017ko aurrekontuetan, herritarren parte hartzea erraztu eta bultzatzeko, proposamenak egiteko eta erabakiak hartzeko interes orokorrari eragiten dizkieten proiektuetan. Parte hartze prozesuari eragiten dizkieten gaiak (“formazko” aspektuak, prozedurak eta edukiak) onartu ziren Tokiko Gobernu Batzarrean 2017/06/08an, non, baita ere, erabaki zen 250.000 euro aipatu ekimenera destinatzea, aukeratutako diren proiektuen finantzaketari erantzuteko. Orain arteko ibilbideari dagokionez, esan behar da, epea amaiturik proposamenak aurkezteko, herritarrek aurkeztu dituztela guztira 352 proposamen, jaso direnak hainbat bidetatik (online, BAZ, Udala eta auzo alkateak, eta abar). Gaur egun aztertzen ari da proposamen horien bideragarritasun teknikoaren edo ekonomikoa, eta aurki Udalak botazioan jarriko ditu “bideragarri”tzat jo direnak, zeintzuk zuzenean botatuko dituzten herritarrek.

Hortaz, erabaki horrek zehaztuko du zer interbentzio finantzatuko diren, eta horien kontabilizazio egokia egiteko, beharrezkoa izango da aurrekontuko kontusailen arteko egokipena

(pasatuko dira, aurrekontuetako dagokien kapitulueta, proposatutako gastuaren izaera ekonomikoaren arabera).

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK - 3.930.750,00 euro

Kapituluak dakar % 2,74 gutxitzea (110,6 mila euro gutxiago), 2017ko aurrekontuan kapitulu honi hasieran esleitutako kopuruari buruz.

Errepikatu memoria hasieran esandakoa, 2018an, aurreko urteetan bezala, garrantzi handia izango dute "**Juan Arzamendi Musika eskola**" eta "**Kulturola proiektuaren erreforma**" proiektuak finantzatzeko diren kontu sailak, diru kopuruak izanik 1.230.000 euro eta 500.000 euro, hurrenez hurren (inbertsio osoaren % 44).

Proiektuetako lehenaren exekuzio aurrekontua da 7.557.477,04 euro (BEZa barne) eta aurreikusita dago aurki onartzea osoko bilkurak obren adjudikazioa (exekutatzekoa 2018 eta 2019 artean). 2017ko aurrekontuaren bidez dagoeneko gordetako diru kopuruaz (2,81 milioi euro) gehituta 2018ko kontu saila (1,23 milioi euro), edukiko genuke guztira, gutxi gorabehera, 4,04 milioi gordeak proiektua finantzatzeko, hau da, aurrekontu osoaren % 53,4. Horri gehitzen badiogu, errepikatzen bada aurreko obra handien kontratazio espedienteen joera, antzeko ezaugarriak zituztenak, aurreikusi daiteke adjudikazio prozeduran lortu daitezkeela ekonomia esanguratsuak eta, gainera, 2017ko ekitaldiko itxieran lortu behar diren soberakinetatik erabili daitezkeela zenbateko osagarriak proiektua finantzatzeko. Hori dena kontuan hartuta, ez da gehiegizkoa pentsatzea 2018ra arte gordetako baliabide guztiekin iritsi gaitzkeela proiektuaren % 80 inguruko finantzaketa maila batera. Azken batean, guztiz bermaturik egongo da proiektuaren finantzaketa bideragarritasuna.

Proiektuetako bigarrena, "Kulturola" eraikinari dagokiona, une honetan garapen fase txikiago batean dago, oraindik ez da onartu exekuzio proiektu teknikoa, eta kontratazio prozedura izapidetuko da atzerapen handiago batez lehen proiektuaren aldean, nahiz eta estimazioa den obra hori ere bukaturik egotea 2019rako. Idatzitako aurreproiektuaren datuen arabera, exekutatu beharreko obrek aurrekontu ekonomiko txikiagoa dute, zehazki 5.888.942,26 euro (bakarrik obra, sartu barik ordainsariak proiektua idazteko, ez eta obra zuzendaritza ere). Proiektu honetan ere ematen da aurrekoaren antzeko egoera bat, hau da, 2018an erreserbak egongo dira, 3,27 milioi euro (2,77 milioi datoz 2017tik eta 0,5 milioi 2018tik), eta horiekin, batzen bazaizkie izan daitezkeen adjudikazio bajei eta funts osagarrien esleitze aurreikuspenari, datozenak 2017ko itxieratik, finantzaketa izan dezakegu erreserbatuta proiektu osoaren % 70era arte. Hori guztia, kontuan hartuta, gainera, eraikinaren ezaugarriengatik, zeina jaso dagoen monumentu moduan Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian, diru laguntza eskaerak tramitatu direla, bai Kultura ministerioan, bai Eusko Jaurlaritzan bertan.

Eskatutako laguntzaren bat lortuz gero, samurtuko litzateke, jakina, proiektuaren finantzaketa, eta diru baliabideak liberatu ahal izango genituzke beste proiektu batzuk egiteko.

Baina horiek guztiak dira usteak, etorkizunean izan daitezkeenak, eta abar, baieztatu ahala, ekarriko dutenak erabakiak hartzea, baina, bitartean, ikusita zer lehentasun eman dion gobernu taldeak horiek exekutatzeari legealdi honetan, ahalegin inportanteak egin beharko dira, eta horrek, zalantzarik gabe, baldintzatuko du finantzaketa edukitzea beste proiektu inportante batzuk egiteko.

Kopuru ekonomiko esanguratsua duten beste proiektu batzuk, aipagarriak, hauek izango lirateke:

- **ITXAROPENA plazako parkearen kontu saila, 140.000 euro.** Proiektuaren xedea da Itxaropena plaza hobetzea, Uribarri auzoan, eta erakargarriagoa egitea. Plazaren kokalekua da ezin hobea haur parke bat jartzeko, etxebizitza dentsitate handiko eremu batean baitago, eta neurri batean, ikastetxe baten aurrean egoteagatik.

Itxaropena plaza da gune bat txiki samarra, eta horrek behartzen du hango elementuak izatea itxura arinekoak, lehentasuna emateko oinezkoak ibiltzeari eta haur jolasen eremuari. Gainera, plaza konfiguratu nahi dugu oinarrিতා naturaren tematikarekin lotua.

Horretarako, pentsatu da ez bakarrik jartzea haur jolas berriak, beste elementu batzuk ere bai (estalkia, zuhaitzia eta abar), eremua eguzkitik, haizetik eta euritik babesteko, plaza erabili ahal izan dezaten ere eguraldiak laguntzen ez duenean eta okerra egiten duenean.

- **Kontu saila Biteri-Garibai berriro urbanizatzeko, 120.000 euro.** Obra proiektu hau da Garibai etorbidean berriro urbanizatzea espaloia eta bus eta taxi geltokiaren ingurua. Horren bidez irisgarri egiten dira 5-7 eta 9 atarteak Garibai etorbidean, baita ere, merkataritza lokalak, fatxada horretan daudenak. Era berean, berritzen da Iturbide egoitzaren aurrealdea, eta haren sarbidea hobetzen da. Ezin dugu ahaztu eremu horretan oinezko jende asko dabilela, ikusita non dagoen, merkataritza gune batean eta bus geltokia dagoelako.

Aurreikusitako jardunean aldatzen da espaloiko zoladura eta bus eta taxi geltokiko zoladura, aldatzen dira ere sestrak (rasanteak) Garibai etorbidea 5, 7 eta 9ko eraikinaren aurrealdean, berritzen da euri uren eta ur zikinen saneamendu sarea, berritzen da argiteria sareren zati bat, eta abar. Horrela, lortzen da ingurune irisgarriago eta atsegina bat oinezkoarentzat, baita ere, asko hobetzea herrigunearen kalitatean.

- **Kontu saila, Makatzenan igogailu berriaren proiektura, 105.000 euro,** martxan dagoen obren kontratazio espedientea finantzatzeko gainontzeko zatia, gaur egun adjudikatzeke dagoena, zeinaren aurrekontu osoa den 985.396,79 euro (sartu barik ordainsari teknikoak); horietatik % 90 daude finantzatuta 2017ko aurrekontuaren diru kopuruez. Hau da, gutxituz gero nabarmen diru kopurua adjudikazio prozesuan, ez litzateke behar izango 2018ko kontu sailaren diru kopururik. Edozelan ere, ez dakigunez oraindik zer eskaintza ekonomiko aurkeztu duten enpresa lizitatuak (6 enpresa), 2018ko aurrekontuan sartu da behar den kopurua, guztiz betetzeko kontrataziora ateratako proiektuaren finantzaketa.

- **Asfaltatze lanen kontu saila – 150.000 euro,** jarraitzeko azkeneko aurrekontuetan hartutako erabakiarekin, hau da, diru kopurua handitzea herrian bide publikoetako bide zoruaren konpontze eta hobetze lanak egiteko.

- **Kontu saila, espaloiak berritzea Gipuzkoa etorbidean, 50.000 euro.** 2018an udal zerbitzu teknikoek proiektu bat idatzi behar dute espaloiak berritu eta hobetzeko Gipuzkoa etorbidean, kaleko 52.etik (San Isidro ermita) kaleko 28.era (Kabi altzariak-errotanda) doan zatian, baina lehentasuna izango du eskumako espaloian, Bergara-Arrasate noranzkoan. Nahiz eta ez eduki une honetan aurrekonturik pentsatutako eskuhartzea egiteko, estimatzen da urte anitzeko izaera izango duela, eta exekutatu beharko da faseka. Hortaz, 2018ko aurrekontuan doan

diru kopuruak jasotzen du obren lehen fasearen ekitaldi horri dagokiona (estimatzen da hasi daitekeela urtearen azken lauhilekoan).

- **Haur parkeen kontu saila, 125.000 euro.** Oraindik idatzi barik daude proiektuak; kontu sail honekin erantzun gura diegu jardun behar batzuei, Arrasateko hainbat eremutan antzemandakoak (Nao Santiago, Udala auzoa, Kurtzetxiki plaza eta abar).

1.0920.622.340.00.00 kontu saila – Kirol sailaren inbertsioak, 200.000 euro.

Kirolen sailak proposatu du kontu sail bat, 200.000 eurokoa, zeina erabiliko den, bereziki, Mojategin futbol zelaiko belar artifiziala berritzeko. Kopuru hori da inbertsioaren herena bakarrik, zeina osatuko den Gipuzkoako Futbol Federazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzekin.

Mojategiko soropilak 10 urte egin du jarri zenetik; hortaz, ia bukatuta du bere bizialdia, baina benetan urgentea da soropila berritzea, batez ere, sekulakoa delako lesio kopurua jokalarien artean, neskak zein mutilak, zelaiaren oraingo egoera txarraren ondorioz.

Kirol azpiegituren inguruan 2018an sortu daitezkeen gainerako beharretarako, eduki nahi dugu soberakin bat, sortu daitekeena 2017ko itxieraren testuinguruan (edo aurrekontuen partizipazio prozesuaren bidez aukeratu daitezkeen proiektuetan).

Azkenik, aurreko urteetan bezala, proposatu da zabalik uztea aurrekontuan, kreditu gehigarri kalifikazioarekin, aurrekontuen exekuzio arauetan jaso, milioi bat euroan handitzea sinatu beharreko kredituen edo maileguen zenbatekoa (azkenean beharrezkoak izanez gero), horrela erantzun ahal izateko azkar samar udalari egokitu dakizkiokeen konpromiso batzuei, inbertsio proiektuetan, adibidez, haien diru laguntza ehunekoak kostu osoaren % 40aren berdina edo handiagoa izateko; horrela, aurrez aurrekontu kopururik ez badago ere, ez da izango oztopo bat intereseko proiektuak aurrera eramateko, batez ere kanpo finantzaketako maila handia badute. Hori guztia horrela, baina kontuan hartuta dagozkion neurri osagarriak hartu daitezkeela, indarrean dagoen araudia aplikatzeagatik aurrekontu egonkortasunari buruz, finantza iraunkortasunari buruz eta gastu erregelari buruz.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 983.608,70 euro

% 6,24ko jaitsiera du, 2017ko aurrekontuaren aldean (-65,5 mila euro).

Gutxitzearen arrazoi nagusia dator orain ez dagoelako konpromisorik ezer aportatzeko Lanako errotondaren obrak egiteko, behin bukatutakoan diputazioak obra horiek 2017an.

2017ko aurrekontuari buruz, **mantendu dira 2018an**, aldaketa txikiren bat izan ezik, iaz zeuden kontu sailak, kontzeptuak eta zenbatekoak (diru laguntza igogailuak jartzeko /irisgarritasuna hobetzea, ekarpena Zubillaga Hiltegia SLko inbertsioak egiteko- honek 2017koari buruz 22,7 mila euroko igoerarekin, horiez gain ekarpenak Mankomunitatearen eta Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren inbertsioak finantzatzeko).

Aldaketa inportantea duen Kontu sailen artean, aipatu behar da San Isidroko elizako teilatua berritzeko obretarako ekarpena, elizbarrutiaren jabetzakoa, baldintzatua hitzarmen bat sinatzeari, non handitu eta bermatu behar den epea lokalak erabiltzen jarraitzeko, Musakolako jubilatuen etxea dagoen lekuan. Proiektu tekniko idatzitik abiatuta, egiaztatu da interbentzioaren bolumenak tamaina handiagoa duela hasieran pentsatutakoak baino (28,5 mila euro 2017an); hortaz, behar izan du osatzea diru kopuru hori kontu sail berri batekin 2018ko aurrekontuan, 72,5 mila eurokoa, interbentzioaren kopuru osoa izan dadin 100.000 euro inguru.

Kapitulu honen barruan, eragin ekonomiko berezia dutelako, kontu sail hauek azpimarratu behar ditugu:

□ Kontu saila, Mankomunitatearen inbertsioak finantzatzeko, 280 mila euroekin, 2017ko diru kopuruaren antzekoa, eta zerbitzuen kuota arruntetarako kontu sailen ezaugarri bertsuak ditu. Hau da, ez diote erantzuten lehen agiriari (banatutako lehen zirriborroa), izan ere, agiri horrek ez du akordiorik hartuta, eskatu daitekeena aintzat hartzeko, eta hain zuzen ere puntu hori, ekarpenena inbertsioak egiteko, planteatzen dituen desadostasun handienak (jardunak Epelen eta operazioak zorpetetik datozenak IDEA programetan - energiaren eraginkortasuna). Egoera horretan erabaki da kontu saila sartzeko diru kopuru berberarekin, 2017ko ekitaldiko berbera. Hortaz, Mankomunitatean onartzen den aurrekontu agiriak erabakiko du zer kopuru sartu kontu sail honetan; hortaz, litekeena da kreditu aldaketen bidez egokitu behar izatea aurrekontua (soberakinak erabiltzea 2017ko itxieran).

□ Arrasateko Udalaren ekarpena, Gipuzkoako Ur Partzuergoa SAK egin behar dituen inbertsioak finantzatzeko, 526.710 euro, % 8,7ko igoera bat 2017ko urtearen aldean.

□ Azkenik, IDAE1 programaren ondorioz (argiteria publikoko luminariak aldatzea eta jartzea LED teknologiako luminaria berriak), Arrasaten egindakoari dagokiona, 466.176,22 euro, kontu sail bat sortu da maileguaren amortizazio kuota finantzatzeko, sinatu zuena Debagoieneko Mankomunitateak, amortizagarria 9 urtean eta “zero” interesean. Lehen urte honetan jasotzen da amortizazioen hasiera, uztailetik aurrera (6 hilabete).

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 180.000 euro

2017an jarritako kopuru berdina.

2017an izandako antzeko kontzeptu eta kontu sailekin, jasotzen dira udalaren ekarpen konpromisoak, Garaia S.Coop.ren kapitalari eginak, 2010/10/07an eta 2013/12/17an hartutako akordioen ondorioz, eta emateko geratzen da, 2017/12/31n 202.578,53 euro (deskontatuta dagoeneko 2017ko kontu sailetik datorren erreserba – 48,2 mila euro), ordaintzen direnak OHZ eta EIOZ zergekin sortutako diru sarreraren bidez, Udalak lortu dituenak Garaia eremu horretan.

Kapitulu honek garrantzi ekonomiko urria du gastu osoaren aldean, eta normalean bakarrik jasoko lituzke aurrekontu kredituak, langileen aurrerakinak finantzatzeko, 90.000 euroko zenbatekoa; era berean, horiek beste kontu saila bat dute diru sarreretan.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 316.456,72 euro

Igotzen da % 1,52, 2017ko aurrekontuko kopuruei buruz.

Kapitulu honetako finantza kargak kalkulatzeko, estimatu da 2018ko aurrekontuetan aurreikusitako maileguak ez duela behar izango ordainketarik hurrengo ekitaldian, ez interesena ez amortizazioarena, uste baita ez duela erabiliko ezelako kopururik. Estimazio hori egiteko arrazoia da 2018an sinatu beharreko mailegu berrien aurrekontu aurreikuspenaren izaera “teorikoa”, hondar baliabide moduan erabilia ekitaldiko gastuen eta diru sarreraren koadratze formala egiteko, benetan espero dugunean lortzea nahiko baliabide 2017ko itxieratik, zorpetze hori beharrezko ez egiteko. Edozein kasutan, ez dugu espero diruzaintza tentsiorik egotea 2018an, eta finantza desfaserik ere ez, beharrezko egiten dutenak mailegu berriak kontratatzea eta erabiltzea.

2017ko aurrekontuaren exekuzioak, zorpetzearen ikuspegitik, erakutsi digu ez dugula behar izan mailegu berririk (nahiz eta “teorian” aurreikusita egon kreditu berri bat, 398,4 mila eurokoa) eta, bestalde, zorraren zenbatekoa, banketxeekin kontratatutako kredituengatik, gutxitu egin da 316 mila euroan, gutxi gorabehera, urteko amortizazioen eraginez.

Beraz, aurreikuspen horiek ontzat emanda 2018ko gastuen eta diru sarrerei buruz (hau da, diru sarreretan, ez kontratatzea mailegu berririk eta, gastuetan, ekitaldiko amortizazioak betez gero), zorpetzearen azken kopurua izango litzateke 1,01 milioikoa 2018/12/31n.

Memoriaren zenbait ataletan adierazi dugu oraingo lege esparrua, aurrekontu egonkortasunari dagokionez, zigortzen dituela, nola edo hala, zorpetze baxua duten udalak, ezen sartzan baita dinamika batean zorpetze txikia □ amortizazio baxuak □ legezko gaitasun txikiagoa zorpetzeko. Ikuspegi horretatik eta albora utzi gabe oraingo araudiak baimentzen dituen salbuespenak (hobetuta foru aldundiak onartutako arau aldaketekin), ez du ematen oso logikoa denik zorpetze tasa txikiaren unean, balio absolutuetan eta erlatiboetan, azken 40 urteotan, Arrasateko Udalak izatea legezko mugak zorpetze berriak eskuratzeko. Argi dago egokia dela egitea joko arauen aldaketa bat, egokituagoak erakunde bakoitzaren finantza egoera errealei. Hala ere, aurreko ideia kontraste moduan, ez dugu galdu behar begien bistatik udalaren aurrezte urriko egoera batean (adibidez, diru sarrera arruntak ia estali ere ez dituen egiten gastu arruntak), nahiz eta abiatze egoera den zorpetze baxukoa, mailegu baliabidea erabiltzeko joerak finantza zailtasunak sortu ditzakeela, eta, baita ere, epe ertainera edo epe luzera bideraezina bihurtzeraino. Hau da, konklusioa da zorpetzea ez da kontuan hartu beharreko aldagai bakarra, kontuan hartu behar dira ere gastuen eta diru sarreraren egitura eta izaera, eta hartuta dauden konpromisoak, oraingoak eta gerokoak, eskainitako zerbitzuetan eta sortutako azpiegituretan.

Bestalde, aurreko aurrekontuetan bezala, aztertu behar dugu zorraren eboluzioa, maileguz mailegu, 1991-2018 aldian, eta erabiliko ditugu 2018ko aurrekontuaren erreferentziak edo estimazioak (lehenago aipatu ditugun lan hipotesien arabera, hau da, 2018an mailegurik ez). Halaber, zor hori erlazioatuko dugu diru sarrera arruntekin, lortu direnak aurrekontuetako

likidazioetatik (2017koak izango lirateke, adierazi bezala, itxiera aurrerapenaren datuetan oinarrituta, eta 2018koak izango lirateke aurrekontu aurreikuspenen arabera), diru sarrera korronteen erreferentzia hori ulerturik udalaren gaitasun ekonomiko arruntaren neurri gisa.

MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA – 1991/2018 ALDIAN (MILA EUROAN)

URTEA	HASIERAKO ZOR BIZIA	MAILEGU BERRIAK	AMORTIZ. EKITALDIA	BUKAERAK O ZORRA	□ AURREKO URT.Z
1991	4.398,2	1.388,9	218,2	5.569	26,6%
1992	5.569	2.013,4	295,7	7.286,7	30,8%
1993	7.286,7	4.771,4	2.372,2	9.685,3	32,9%
1994	9.685,3	2.434	378	11.741,4	21,2%
1995	11.741,4	1.911,2	605,8	13.052,2	11,2%
1996	13.052,2	2.704,6	3.755,1	12.001,6	- 8,0%
1997	12.001,6	---	976	11.025,6	- 8,1%
1998	11.025,6	---	1.033,1	9.992,4	- 9,4%
1999	9.992,4	1.434	1.140,1	8.852,3	- 11,4%
2000	8.852,3	-	1.123,9	7.728,4	- 12,7%
2001	7.728,4	1.803	1.156,3	8.375,1	+8,4%
2002	8.375,1	1.800	1.240,1	8.935,3	+ 6,7%
2003	8.935,3	---	1.429,2	7.506,1	- 16%
2004	7.506,1	---	1.682,5	5.823,6	- 22,4%
2005	5.821,6	5.904,9	1.723,8	10.004,7	+ 71,8%
2006	10.004,7	1,200	1.328	9.874,7	- 1,3 %
2007	9.874,7	---	1.227,2	8.647,5	- 12,5%
2008	8.647,5	---	1.060,2	7.587,2	- 12,3 %
2009 (1)	7.587,2	3.077,5	1.081,9	9.582,8	+26,3%
2010	9.582,8	-	1.403,5	8.179,3	-14,6%
2011	8.179,3	3.111,2 (2)	2.146,0	9.144,5	11,4%
2012	9.144,5	---	2.438,2	6.706,3	-27 %

2013	6.706,3	--	2.312,6	4.393,7	-34,5%
2014	4.393,7	--	1.065	3.328,7	-24,2%
2015	3.328,7	--	966,1	2.362,6	-29,0%
2016	2.362,6	--	714,8	1.642,0	-30,5%
2017 (3)	1.642,0	--	315,9	1.326,1	-18,9%
2018(4)	1.326,1	--	316,5	1.009,6	-24,2%

Mailegu berritzat jotzen dugu Foru Aldundiaren aurrerakina, 2009ko UFFFren saldo negatiboarengatik.

Eusko Jaurlaritzaren interesik gabeko aurrerakina barne (2010eko murrizketa eta 2011ko berria)

(3) – 2017ko aurrekontuaren itxiera estimazioen arabera

(4) - 2018ko aurrekontuko datuen arabera, mailegu berririk barik

Maileguen zorra lotzen badugu udalaren diru sarrera arrunt edo korronteeekin, eta 1990-2018 aldiko eboluzioarekin, koadro hau daukagu:


DIRU SARRERA ARRUNTETAN MAILEGUEN ZORRAREN ZERRENDA – 1990-2018 ALDIAN

EKITALDIA	ZORRA 12/31n	ESKUB. LIKID ERAG. ARRUN.	%G./ SARRERA ARRUNTAK
1990	4.398,2	9.767,6	45%
1991	5.569	10.862,7	51,3 %
1992	7.286,7	12.550,9	58,1 %
1993	9.685,3	12.337	78,5 %
1994	11.741,4	13.078	89,8 %
1995	13.052,2	13.477,7	96,8 %
1996	12.001,6	14.944,8	80,3 %
1997	11.025,6	15.971,9	69 %
1998	9.992,4	16.194,9	61,7 %
1999	8.852,3	17.340,4	51 %
2000	7.728,4	19.833,4	39 %
2001	8.375,1	18.784,2	44,6%
2002	8.935,3	19.167,7	45,7%
2003	7.506,1	21.070,8	35,6%
2004	5.821,6	24.461,2	23,8%
2005	10.004,7	24.549,4(*)	40,8%
2006	9.874,7	27.650,8	35,7%
2007	8.647,5	28.870,84	30%
2008	7.587,2	28.469,48	26,6%
2009 (UFFF 2009 zor moduan)	9.582,8	26.072,0	36,7%
2010	8.179,3	27.608,6	29,6%
2011	9.144,5	25.631,8	35,7%
2012	6.706,3	26.665,2	25,2%
2013	4.393,7	27.335,6	16,1%
2014	3.328,7	29.347,6	11,3%
2015	2.362,6	32.485,2	7,3%
2016	1.642,0	30.993,3	5,3%
2017 (itxiera estim. arabera)	1.326,1	30.850,0	4,3%
2018 (2018ko aurrek.ri buruz)	1.009,6	31.273,2	3,1%


(*) 2005az geroztik, aprobetxamendu lagapen monetarizatuak eta hirigintza kargak ez dira zenbatzen diru-sarrera arrunt moduan

Koadro hau eta aurrekoa aztertuz gero, ikusiko dugu 1990 – 2018ko bukaerako aldiari maileguen zorra, termino absolutuetan, % 77 gutxitu dela, eta, halaber, gutxitu dela nabarmen diru sarrera arruntei dagokienez ekitaldi bakoitzaren bukaeran, izan ere, 1990ean ekitaldiko diru sarrera arruntaren % 45 izatetik pasatu da izatera 2018rako aurreikusitako diru sarreraren % 3. Konklusio modura, adierazi daiteke aztertu den aldiari zorraren zenbatekoa nabarmen gutxitu dela balio absolutuetan eta gutxitze hori dela askoz handiagoa neurtzen badugu udalaren gaitasun ekonomikoari buruz.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi daiteke zein eboluzio izan duten maileguen zorraren aldagaiek 1990/2018 aldian eta diru-sarrera arruntek 1990-2018 aldian (2018. urteko datuak, aurrekontuaren kopuruaren arabera, mailegu berririk gabe)



**1990/2018 MAILEGUEN ZORRAREN EBOLUZIOA ETA OHIKO DIRU-SARREKIN DUEN LOTURA
MILA EUROETAN**



DIRU SARREREN AURREKONTUA - 2018

Aurrekontua da 32.202.058,18 euro, eta igoera da % 2,16, 2017ko aurrekontuaren aldean.

Aztertuta zer eboluzio duen 2018ko aurrekontuak kapituluz kapitulu, 2017ko ekitaldiaren aldean, koadro hau daukagu:

2018-2017 AURREK. EBOLUZIOA, KAPITULUZ KAPITULU (MILA EUROAN)


KAPITULUA	AURREK. 2018	GUZT. Z	AURREK. 2017	GUZT. Z	ALDAE RA. 2018/17	▲2018/17
I - ZUZENEKO ZERGAK	7.453,5	23,11%	7.658,3	24,30%	-204,8	2,67%
II - ZEHARKAKO ZERGAK	510	1,58%	325	1,03%	185	56,92%
III TASAK ETA PREZIOAK	7.397,5	22,94%	7.158,5	22,71%	239	3,34%
IV TRANSFER. ARRUNT.	15.755,5	48,86%	15.385,6	48,81%	369,9	2,40%
V ONDARE SARRERAK	156,7	0,48%	138,2	0,44%	18,5	13,39%
VI ONDAREA SALTZEA	251	0,78%	220,2	0,70%	30,8	13,99%
VII KAPITAL TRANSF.	285	0,89%	146,2	0,46%	138,8	94,94%
VIII FINAN. AKT. ALDAK.	90	0,28%	90	0,29%	0	0
FINAN. PASIB. ALDAK.	347,9	1,08%	398,4	1,26%	-50,5	-12,69%
GUZTIRA	32.247,1	100%	31.520,4	100%	726,7	2,31%


Koadro honen bidez egiaztatu daitezke aldaketa nagusiak, 2018ko aurrekontuan izandakoak:

- Apur bat gutxitu da diru sarrerren kapituluaren garrantzia, udal fiskalitatearekin lotuak (I. eta III. Kap. – zergak eta tasak), zeina, aurrekontuko diru sarrera guztiei buruz, pasatzen den % 47,1etik % 46,1ra, partzialki konpentsatua diru sarrera handiago batzuekin, espero direnak II. kapituluaren (EIOZ), pasatzen da % 1,03tik % 1,58ra, exekutatu beharreko obren bolumena apur bat bizitu izanaren ondorioz.
- IV. Kapituluaren (transferentzia arruntak) igoera izan da bai termino kuantitatiboetan (+369,2 mila euro) bai portzentaje terminoetan (pasatu da % 48,81etik % 48,93 izatera), 2017ko diru sarrerren aldean. Igoera horren arrazoi nagusia dator 2018rako Foru Funtzaren diru bilketan aurreikuspen handiagoak daudelako (+449,3 mila euro 2016ko aurrekontuari buruz).

- Kapital operazioen garrantziak (VI. Kap. – ondareak saltzea eta VII. Kap. – kapital transferentziak), igo egiten du apur bat, batez ere diru laguntzen diru sarreretan oinarrituta (Kulturola proiektua), oraindik ere jarraitzen badu ere testimoniala izaten diru sarrera guztiei buruz, izan ere, diru sarrera guztien % 1,67 baita bakarrik (2017an % 1,16).
- IX Kap. – zorpetzearen garrantzia pasatzen da % 1,26 izatetik % 1,08 izatera. Edozelan ere, kopuru hori erlatibizatu egin behar da, izaera guztiz teorikoa baitu, izan ere, azken urteotan aurrekontu kopuruak izan dira erreferentzia hutsak aurrekontua koadratzeko. Egiaz, azken 6 ekitaldietan ez da kontratatu mailegurik, eta 2018rako, lehen esan bezala, aurrekontuetan sartuta badago ere, estimatu da ez dela behar izango ezein kopururik.

Honekin batera doazen grafikoetan ikusi dezakegu, batetik, 2018ko aurrekontuaren kapituluz kapituluko eboluzioa 2017ko aurrekontuaren aldean eta, bestetik, diru sarreraren aurrekontuaren kapituluz kapituluko portzentaje banaketa.





Azkenik, adierazi behar da udalak 2018an jaso behar dituen diru sarreretako 100 euro bakoitzeko:

- **47,63** datoz **udaleko zerga-arlotik (diru sarrerren I, II eta III. kapituluak).**
- **48,93** datoz beste erakunde edo administrazio batzuen **diru laguntza arruntetatik, horietatik 45** datoz **Udalak Finantzatzeko Foru Funtsetik.**
- **0,48** lortzen dira **ondarezko diru sarreretatik** (alokairuak, interesak eta abar).
- **0,78** espero da lortzea **ondarea saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamenduen diru-sarreretatik.**
- **0,89** lortzen dira inbertsioak finantzatzeko jasotako **kapital diru laguntzetatik.**
- **0,28** datoz **langileen aurrerakinak itzultzetik** eta beste kontzeptu batzuetatik.
- **1,08** lortuko lirateke “teorian” **zorpetze** bidez, hau da, egin beharreko mailegu berriak, nahiz eta, benetan, estimatzen den ez dela beharrezkoa izango operazio berriak egitea, zeren, 2017ko itxieraren testuinguruan lortu beharreko funtsak, estimatzen baita nahikoak izango direla aurrekontua koadratzeko, jo barik kreditu berrietara.

Orain diru-sarrerren aurrekontuaren aldaera nagusiak aipatuko ditugu.

LEHEN KAPITULUA – ZUZENeko ZERGAK – 7453.500,00 euro

Gutxitu da % 2,67, 2017ko aurrekontuaren aldean.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, kontuan hartu dira 2017ko benetako diru sarrerak eta ekitaldiaren itxierako estimazioak, eta zerga aldaketak 2018rako onartuak Ordenantza Fiskaletan, kapitulu honetako zergak arautzen dituztenak, osoko bilkurak 2017ko urriaren 3an hartutako akordioaren arabera (aldaketak onartzea, aplikagarriak ordenantza fiskalei), baita ere, diru sarrera berezi batzuen estimazio zuhur bat, ikuskaritza lanen ondorioz (borrokatzea iruzurraren aurka udal eremuko zergetan, bereziki JEZn), egin beharrekoak hurrengo ekitaldian, 50.000 euroko zenbatekoa.

Horri dagokionez, aldaketa nagusiak, 2018rako onartuak, hauek dira:

a) OHZrako, zeinetan katastro balioak nabarmen jaitsi diren, aplikagarriak 2017rako (areagotua ondasun higiezinatarako industria lurzoruetan), tipoak honela ezarri dira:

- Hiri izaerako ondasunak industria lurzoruan, aldaketa barik, zeren % 0,6an baitago (foru arauak onartzen duen topea) 2017az geroztik.
- Gainerako ondasun higiezinetan, hiri izaerakoak, pasatzen da % 0,2315etik % 0,2350era.
- Landa izaerako ondasun higiezinak geratzen dira aldatu barik % 1,1ean (foru arauak onartzen duen topea).
- Katastro balioa, nahiz eta hasiera batean adierazi zen eguneratu egingo zela % 2 igota, azkenean ez dute berraztertu; hortaz, eraikuntzen amortizazioengatik, ekarriko du gutxitze txiki bat 2017ko ekitaldiaren aldean.

b) Jarduera ekonomikoen gaineko zergak ez du aldaketarik, legeak baimentzen duen topean baitago, 2,2ko tipo batekin (udal koefizientea).

c) 2018an zerga tipoan % 1,5 igotzea ibilgailuen gaineko zergan.

d) Aldatzen da hiri izaerako lurren balio gehitzearen gaineko zergaren zerga tasa, % 1,5 gehitzen (pasatzen da % 6,7524 izatetik % 6,8537 izatera), nahiz eta, katastroa berrikusteagatik (lurzoruaren balioa jaitea), espero den aldaketen efektu bateratuak ekarriko duela presio txikiagoa 2017rako.

Kapituluaurren laburpen moduan, egiaztatu daiteke hitz eman zela 2018rako udal fiskalitatea berritzea, baina ez dela halakorik egin 2017an; eta, hortaz, 2016 izan ziren mugak, erabaki berriak hartzeko, areagotu egin dira gehiago 2017an. Hala, industriako OHZn tipo baimenduen mugan gaude (nahiz eta dezente jaitsi diren katastroko balioak), JEZn, nahiz eta ematen duen ziklo aldaketa bat datorrela edo krisitik aterako garela apurka-apurka, landako OHZren tipoa dago legezko mugan. Hau da, ez dago marjina handirik erabakiak hartzeko, bakarrik hiriko OHZn etxebizitza lurzorurako (etxebizitzok oro har herritarrei eragiten diete) eta ibilgailuen gaineko zergan (oro har zergadunei eragiten die) marjina apur bat dago.

Gainera, kapitulu honetako zergen beste bati dagokionez, **hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga**, Konstituzio Auzitegiaren epaiaren ondorioz, 2017ko otsailaren 16koa, zeinak deklaratu zituen konstituzioaren aurkako eta nulu 16/89 Foru Arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikulua, zerga arautzen duena Gipuzkoako lurralde historikoan, izan ere, horiek zergapean jartzen zituzten balio gehikuntzarik ez duten egoerak, ireki zaizkie bide inportanteak sortu beharreko diru sarrerak gutxitzeko. Diru sarrerak gutxitze hori dator ez bakarrik etxegabetzeen arazoa dela-eta edo higiezinen salmentatik galerak sortuta (arazo hori justiziakoa zen), agerian jarri denean aldatu beharra dagoela zergaren egitura, legegileak emandako konponbidea, atakatik irteteko epai horren ondorioei buruz, 2/2017 Foru Dekretu Arauaren bidez, suposatzen du lurren balio gehikuntza zehaztu beharko dela jabetzaren erosketa balioaren eta eskualdaketaren balioaren artean alderatuta. Horrek, praktikan, esan gura du eskualdaketan zati inportante bat (herentziak, errealitatez kanpo deklaraturako balioak eta abar) zergaren aplikazio eremutik kanpo geratu daitezkeela eta zailtasunak egon daitezkeela udalarentzat, egiaztatzeko eskura dituen baliabideez eskualdaketetan gehikuntzarik dagoen edo ez.

Azken batean, hainbat bidetatik (nulua gorantz, kudeaketa zailtasunak eta abar) ondorio berberera iritsiko gara, urgentea dela udal fiskalitatea berritzea, eta gerorazina da lan horiek egitea modu erabakigarrian eta urgentziaz, horien fruituak ikusi/baliatu daitezzen 2019ko ekitaldian. Bitartean, arau esparruak mugatzen ditu jardun aukerak eta udal erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA – ZEHARKAKO ZERGA. 510.000,00 euro

Igo da % 66,67 2017ko aurrekontuaren aldean, nahiz eta 2017ko benetako diru sarreraren aldean (benetako diru sarreraren datuetatik abiatuta 2017/10/31n, izan direnak oso altuak azken 5 urtean lortutako datuen aldean) gutxitu den % 40 inguru. Erabili da irizpide zehur bat aurrekontua egiteko, eta ez da jaso diru sarrerak errepikatzea, 2017an lortuak, tamaina bateko proiektu ez ohikoengatik.

Kapitulu honetako diru sarrerako kontzeptu bakarra da Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, eta honek ez du izan aldaketa esanguratsurik 2018rako, zerga tipoa legez baimendutako gehienez dago eta (%5 obra, eraikuntza edo instalazioaren balioaren gainean). Aurrekontuko kopurua dago udal kontrolatik guztiz kanpo dauden faktoreetatik, zehazki, pentsatutako diru sarrerak lortzeko, zergadunek obra proiektuak egin behar dituzte (udal lizentzia behar dutenak), zenbateko gordina guztira 10,2 milioi euro. Baldin eta ekitaldian desbideraketa esanguratsuak izaten badira aurreikuspenaren eta benetan egiten denaren artean (bai positiboak bai negatiboak), doitu egin beharko lirakeke, betiere bermaturik egoten bada aurrekontuaren oreka gastuen eta diru sarreraren artean.

Bestalde, bereizten jarraitzen dugu diru sarreraren kontu saila -EIOZ Garaia-tik datorrena eta EIOZ orokorra, gainerako eremuetan, baina Garaia guneari dagokionez, aukeratu dugu 1 € jartzea aurrekontuetan, handitu egin ahal izango dena. Horrela, diru sarrerarik lortuz gero, horien kontura handitu ahal izango dira Garaia S.Coop.ri ordaindu beharreko kopuruak, 2010eko urriaren 7an eta 2014ko abenduaren 18an osoko bilkuran hartutako akordioaren arabera, non udalak onartu baitzuen kapitalak handitzea Garaia S.Coop. entitatean, baina kopuruak emango dira baldin eta diru sarrerak benetan sortzen badira udal zerga horretan (eta geroago OHZn).

Azkenik, 2018ko aurrekontuan, kapitulu horretan bertan, partida bat sartu da ekitaldian egin behar diren ikuskatze lanen ondorioz lortzen diren diru sarrerak biltzeko, 10.000 euroan kuantifikatuak, komenigarritzat jotzen baita hura bereizita kontabilizatzea.

HIRUGARREN KAPITULUA – TASAK ETA PREZIOAK - 7.397.500,00 euro

Igotzen da % 3,34, 2017ko aurrekontuaren aldean.

Udalak 2018ko Ordenantza Fiskalen aldaketak onartu zituen osoko bilkuran 2017ko urriaren 3an, eta horiek jasotzen dute orokortasunez % 1,5eko igoera bat 2017ko tarifen aldean, zaborra jaso eta eramatearen tasan eta gizarte zerbitzuen tasetan izan ezik, zehazki tutoretzapeko etxebizitzaren zerbitzuen tarifetan, etxeko laguntza zerbitzuan eta Iturbide egoitzarenean, ez baitira aldatu; nolahi ere, diputazioak aldaketa batzuk sartu ditzake baremo ekonomikoetan, erabili beharrekoak erabiltzaileen ekarpenak kalkulatzeko.

Aurrekontu aurreikuspenak kalkulatzeko, oinarri moduan hartu da 2017ko benetako diru sarreraren informazioa, gehituta gertatu litezkeenak hemendik eta ekitaldia itxi arte, zerga ordaintzen hastetik datorren gehikuntza batekin etxebizitza berrien tasetan (Elma ingurua).

Azkenik, adierazi behar da kapitulu honetako lau diru sarrera kontzeptu nagusiek, hala nola ur eta zabor tasak, enpresa hornitzaileek jabetza publikoa okupatzearen tasa eta kirol sailaren diru sarrerak (kiroldegietako tasak), egiten dutela kapitulu honetako zenbatekoaren % 79,7, zehazki, 5,90 milioi euro.

LAUGARREN KAPITULUA – TRANSFERENTZIA ARRUNTAK – 15.755.516,00 euro

Balio absolutuetan handitu da 0,37 milioi euro, 2017ko aurrekontuaren aldean, eta % 2,40 portzentaje terminoetan.

Gehitze hori azaltzen du arrazoi nagusi batek, dagoeneko aipatua memoria honetako hainbat ataletan, eta hori dator 2018rako Foru Funttsaren diru sarreraren estimaziotik; Arrasaterentzat da 14.497.166 euro, 0,45 milioi euro inguru gehiago 2017ko aurrekontuan jarritako kopurua baino (□ % 3,2). Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan egindako presioen arabera, 2017/10/11ko bilkuran, 2017ko itxiera estimazioa dator desbideraketa aipagarri barik, hau da, aurrekontuan jasotako kopuruaren antzeko kopuruak (ez da espero tamainako desbideraketarik, ez positiborik, ez negatiborik), baina kendu egin denez, estatuaren eta EAEren artean erabakita, ordaindu beharreko zenbatekoen metodologia eta kalkulua, bai gertatuari buruz, 2016ra artea likidatu beharreko zenbateko batekin, bai gerora begira, 2017-2021 bosturtekorako, estatuari ordaindu beharreko kupoagatik arriskuaren ziurgabetasuna, zeina Arrasaterentzat izan zen 2016ko itxieran diruzaintzako soberakina gutxitzea (magnitute hori erabiliko litzateke, beste kasu batean, gastu berriak finantzatzeko), 741.439,88 euro. Azken batean, berri ona, eta zalantza barik horrek lagunduko du datuak hobetzen 2017ko kontuen itxieran.

2018ko kalkulua oinarrituta dago aurreikuspen batzuetan, Foru Aldundiak horri buruz egindakoak, zehazki % 6,67ko igoera batean, hitzartutako zergen diru bilketan, 2017ko

aurrekontuko kopuru estimatuaren aldean. Aurrekontuko gehikuntza hori egotzi dakiok, funtsean, Foru Aldundiak berak emandako informazioaren arabera, faktore hauen konbinazioari:

a.- Aurreikusten du ekonomia hazi egingo dela, termino errealetan, % 4,1 hazi ere. Gipuzkoak Eusko Jaurlaritzari eman beharrekoaren koefiziente horizontala aldatzea, zeina pasatzen den % 32,89 izatetik 2017an % 33,19 izatera 2018an.

Kapitulua gainerako kontu sailetan erabaki da aurrekontuan jasotzea azken urteotan finkaturik dauden diru laguntza programen zenbatekoak, dagozkion aldaketekin, informazio eguneratua oinarrituta. Aldaketa horietan, aipatu behar dira aldaketa negatiboak, gizarte ongizatearen sailetik datozenak. Hala, aurrekontuan jarri dira 115 mila euro (2017ko aurrekontuan jarri ziren 150 mila euro) funts bereziaren banatzetik etortitako diru sarrerak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema zabaltzeko, eta gutxitu dira, baita ere, diru sarrerak, Foru Aldundiak etxeko laguntza zerbitzurako ekarpenean aurreikusitako, zeintzuk pasatzen diren 180 mila eurotik 2017an 130 mila izatera 2018an, aurrekontuko kopuruaren oinarrituta (datuak ez dira oinarritzen zerbitzuaren benetako eskarian), hori guztia zerbitzuen eskumenak berriro esleitu arte (une honetan negoziazioan Eudel, Foru Aldundia eta Gipuzkoako udalen artean).

Diru sarreren beste kontzeptu inportante batzuk izango lirateke EJren ekarpena Gizarte Larrialdietako laguntzak jasotzeko, 240 mila euro, aurrekontuko gastuan oinarrituta, Lanbide-ren diru sarrerak langileen kontratazioak finantzatzeko enplegu sustapeneko programetan, 125 mila euro, HABEren diru laguntza udal euskaltegiko zerbitzuaren gastuak finantzatzeko, 390 mila euro.

BOSGARREN KAPITULUA – ONDARE DIRU-SARRERAK – 238.150 euro

Gehitu egin da % 13,35, 2017ko ekitaldiaren aldean.

Kapitulu honek ez du larregiko garrantzi espezifikorik udalaren diru sarreren multzoan, non diru sarrera kontzeptu nagusia hartzen duten errentamenduek edo errentak, lortuak ondarearen bidez (kapitulu osoari buruz % 76)

2017ko urtearen aldean aldaketak erantzuten dio kontzeptu bati, borondatezko izaera moduko bat duena, izan ere, aldeko txostena jaso eta gero, zerbitzu publikoa ematen jarraitzearen ikuspuntutik, Biteri eta Garibai parking publikoen ustiaketa kontratuaren konkurtso prozesua, enpresa berri batera eskualdatu baita, Cnes. Murias SA enpresara, kontratu horren ustiatzea, eta udalak hartu ditzakeen erabakien arabera, ezin da alde batera utzi parking horiek interesa piztu dezaketela administrazio emakidak direla-eta. Udalak eskubidea duenez diru sarrerak lortzeko, lortzen badira azken 175 plazen adjudikazio kanonaren % 85etik, adjudikatzekoak erabilera lagapen erregimenean (kontuan hartu barik 150 plaza, erreserbatuak txandaka erabiltzeko), egiten da aurreikuspen sinboliko bat, 16.000 eurokoa, kontzeptu horri dela-eta.. Edozelan ere, agerrarazi gura dugu kudeatu eta erabakiak hartu behar direla parking publiko horien ustiatze baldintzei buruz.

Gaur arte beste kontzeptu batek ere garrantzia izan du, udal diruzaintzan lortutako finantza diru sarrerak edo errendimenduak, nahiz eta espero den izatea egoera saneatua

diruzaintzan, finantza erakundeak gaur egun oso gutxi ordaintzen ari baitira edo ez dute errentagarritasunik batera, hondar izaera dauka, urtean diru sarrerak 2018an 6 mila euro.

SEIGARREN KAPITULUA – INBERTSIOAK INORENTZEA - 251.000 euro

Handitu da % 13,97, +30,8 mila euro, 2017ko aurrekontuaren aurreikuspenaren aldean.

Kapitulu honetan, aurrekontuan jasotako kontu sailak eta zenbatekoak, gaur gaurkoz, diru sarreraren espektatiba generiko hutsak dira, nahiz eta akordio jakin batzuk egon AE 60-Hondarribia kalea, AE39-Fagor San Andres, uzten dutenak aurreikusten aurrekontu aurreikuspenak lortu daitezkeela. Hau da, ez dago operazio zehatzik garapen maila nahikoa duena ziurrak irizteko diru sarreraren aurrekontu aurreikuspenak.

Edozelan ere, historikoki diru sarrerak lortu direnez kontzeptu horien truke eta uste denez arrazoizkoa dela espero izatea operazioen bat gauzatzea (zailtasun handiagoren bat lokalak inorentzeari buruz, aurrekontuan 50 mila euro), kopuru “zuhur” bat jarri dugu aurrekontuan inorentzeetan, kargetan eta hirigintza aprobetxamenduetan, 250.000 euro, zeinak izan beharko duen jarraipen eta kontrol zorrotza, nahi ez dugun desdoitzerik ez izateko 2018ko kontuetan.

ZAZPIGARREN KAPITULUA – KAPITAL TRANSFERENTZIAK - 285.000 euro

Handitzen da % 95, 2017ko aurreikuspenen aldean. Gehikuntza hori dator bakar-bakarrik Eusko Jaurlaritzak egin zuen diru laguntza aurreikuspenetik (oraindik ez dago emakida erabakirik), 200.000 eurokoa, Zerrajerako erloju eraikin zaharra birgaitzeko obrak egiteko, “Kulturola” izeneko proiektuan. Gainera, Kultura ministerioari diru laguntza bat eskatu zaio proiektu horretarako, Espainiako Ondare Historikoaren 16/1985 Legeak, ekainaren 25ekoa, 68. artikuluan azaldutakoaren arabera, kulturako % 1,5 izenekoaren kontura. Ez dago erabakirik planteatu den eskaeraren gainean; hortaz, kasu honetan, erabaki da ez jartzea diru sarreraren kopururik aurrekontuan.

Aurreko ekitaldietako memorietan azaldutakoaren antzera, komentatu behar da, ez badugu gura inbertsio jardueraren finantzaketa oinarritzea bakarrik zorpetzean, egiaztatu zer aurrezki gutxi sortzen den (diru sarrera arruntak-gastu arruntak), kapitulu honetako eboluzioa eta kudeaketa (diru laguntzak eta ekarpenak inbertsioak finantzatzeko) klabeak dira tamaina bateko proiektuak exekutatu ahal izateko. Hortaz, dagozkion gestioak egin beharko dira, saiatzeko konpromisoak lortzen beste administrazio batzuen aldetik elkarrekin finantzatzeko proiektuak (adibidez, Kultura ministerioarena eta Eusko Jaurlaritzarena –Kulturola, edo Foru Aldundiarena-Mojategin belar artifizialen zelaiak). Dena den ere, 2018ko aurrekontua egiteko, erabaki da, “Kulturola” proiekturako EJren laguntzarena izan ezik, irizpide zuhurra hartzea, hau da, sartzea bakarrik diru laguntzen aurreikuspen txikiak, lehendik finkaturik dauden programetarako (liburutegietako ekipamenduak, energia efizientzia, irisgarritasuna, zoru kutsatuak eta energia efizientziak).

Halaber, 2018rako, nahiz eta ez jakin zer kopuru onartuko diren 2017ko aurrekontuaren likidazioaren testuinguruan, jarraitzen dugu aurrekontuan jasotzen Mankomunitatearen soberakinen banaketa aurreikuspen bat, kapital eragiketengatik (VII. Kap.), 30 mila eurokoa (nahiz eta 2017an 2016ko likidaziotik lortutako diru sarrerak, aurrekontuan jasotakoak baino asko handiagoak, etorri zetozen bakarrik operazio arruntetatik).

Bestalde, samurtze aldera, arin samar, uztartzea egin daitezkeen laguntza programetan, hartarako idatzi litezkeen laguntza programak kokatze aldera eta horien kostuan udalari egokitzen zaion portzentajea finantzatu ahal izateko, aurrekontuen exekuzio arauetan jaso dugu aukera bat, behar izanez gero, milioi bat euroan gehitzeko 2018ko ekitaldian sinatu beharreko maileguen zenbateko osoa, betiere diru laguntza bidez lortutako finantza portzentajeak inbertsioaren guztizko bolumenaren berdinak badira edo inbertsioaren bolumen osoaren % 40 baino handiagoak badira.

ZORTZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA AKTIBOEN ALDAKETA - 90.000 euro.

Kopuru berdina 2017ko kopuruarekin alderatuta. Oso eragin txikia du aurrekontuan, izan ere, kapitulu honek jasotzen ditu udalak langileei emandako aurrerakinak itzultzetik datozen diru sarrerak, kontzeptu horretarako onartu zen gastuaren kopuru bera.

BEDERATZIGARREN KAPITULUA – FINANTZA PASIBOEN ALDAKETA - 347.891,18 euro.

Kapitulu honek jasotzen du datorren urtean hitzartu beharreko mailegu berrien aurreikuspena.

2018ko aurrekontuak “teorian” koadratzeko behar den kopurua da, hau da, behar den diru sarrera osagarria gastu guztiak finantzatzeko. Memoria honetako hainbat ataletan esan dugu legezko mugetatik abiatuta, zorpetze berrietarako eta kontuan hartua, 2017ko ekitaldiaren itxieraren testuinguruan, espero dela soberakin handia izatea (lehen hurbilketa zuhur bat eginda, lotua baitago oraindik hainbat faktoreri/aldaketari, estimatu daitekeena 2-3 milioi euro inguruan), gobernu taldea ahaleginduko da, ahal den neurrian, 2018an mailegu berririk ez egiten. Gaurko egunean, legealdian egin beharreko inbertsio proiektu nagusiak zehazten lortu den garapen mailarekin, ematen du finantza beharrak, exekuziotik datozenak, gertatuko direla bakarrik 2019an, izan ere, orduan bukatuko dira legealdian egin beharreko tamaina handiko 2 proiektuak.

Bestalde, adierazi dugu ere memoria honetako hainbat ataletan (eta aurrekontua betetzeko arauetan erregulaturik) formalizatu beharreko maileguen kopurua 2018an handitu daitekeela beste milioi bat euroan, aurrekontua egonkortzeari eta finantza iraunkortasunari buruz ezarritako legezko betebeharrak bete behar direla kontuan izanik, finantzatzeko beharrak izanez gero horiek erantzuteko, beste administrazio batzuekin elkarrekin finantzatzeko inbertsio proiektuetatik datozen beharrak, hain zuzen ere. Aurreikuspen hori egin dugu uste dugulako, nahiz eta une honetan ez jakin ziur aukerarik egongo den zentzu horretan, baietz izanez gero, ez litzatekeela logikoa izango uko egitea hura exekutatzeari, udal finantzaketarik ez dagoelako, are gehiago proiektu horiek laguntza portzentajeak eduki ditzaketenean, oso interesgarriak exekuzioa

bideragarri egiteko. Aurrekontuaren agirian listoia ezarri dugu %40 ko finantzaketa portzentajea mailegu gehigarriaren bidea erabiltzeko, hori guztia kontuan izanik muga hori geroago berriro planteatu daitekeela, osoko bilkurak hala iritziz gero.

Azken batean, ez badago aukerarik inbertsio berriren bat kofinantzatzeko, eta zorrotasun irizpidearen ondorioz, udalak aplikatua legealdiaren lehen hiru aurrekontuetan (2016-2018), 2018rako egin diren aurreikuspenak betez gero, ematen du ez dela izango beharrezkoa jotzea zorpetzeari hurrengo urtean.

Azkenik, eta memoria honetan zehar aipatutakoaren osagarri gisa, aztertuko du zer aldagai eragiten duten udalaren zorpetze indizean, bai eta indize horren eboluzioa ere 1991-2018 aldian.

**ALDAGAIEN KOADROA, ERAGINA DUTENAK ZORPETZE INDIZEAN
1991 – 2018 ALDIA**

URTEA	ZOR BIZIA MAILEGUAK	INTERES TIPOA, 12/31n	OPER. ARRUNT. LIKID. ESKUB.	ZORPETZE INDIZEA
1991	5.569	13%	10862,7	9,9%
1992	7.286,7	15%	12.550,9	11,5%
1993	9.685,3	8,75%	12.337	11,5%
1994	11.741,4	8,65%	13.078	14%
1995	13.052,2	9,25%	13.477,7	15,6%
1996	12.001,6	6,35%	14.946	11,2%
1997	11.025,6	4,86%	15.971,9	9,6%
1998	9.992,4	3,36%	16.194,9	9,5%
1999	8.852,3	3,39%	17.340,4	8,6%
2000	7.728,4	5%	19.833,4	7%
2001	8.375,1	3,5%	18.784,2	7,8%
2002	8.935,3	2,9%	19.167,7	9,8%
2003	7.506,1	2,12%	21.070,8	8,6%
2004	5.823,6	2,16%	24.461,2	7,6%
2005	10.004,7	2,49 %	24.549,4	9,3 %
2006	9.874,7	3,73%	27.650,8	5,9 % (4)
2007	8.647,5	4,68%	28.870,84	5%
2008	7.587,2	3,45%	28.469,48	4,7%
2009	9.582,8(3)	1,2%	26.072,0	8,5% (3)
2010	8.179,3(3)	1,52%	27.608,6	8%(3)
2011	9.144,5(3)	2%	25.631,8	10,1%(3)
2012	6.706,3(3)	0,75%	26.665,2	9%(3)
2013	4.393,7	0,75%	27.335,6	4,1% (4)
2014	3.328,7	0,40%	29.347,6	3,4%
2015	2.362,6	0,40%	32.485,2	2,3%
2016	1.642	0,15%	30.993,3	1,1%
2017(1)	1.326,1	0,15%	30.850,0	1,1%
2018(2)	1.009,6	0,15%	31.273,2	1%

(1) Itxiera estimazioaren arabera.(2) (aurrek. datuen arabera)(3) Ez da beharrezko jotzen 2018rako aurreikusitako mailegua Zorraren eta zorpetzearen eraginetarako, 2009ko UFFFgatik Foru Aldundiarekin dugun saldo negatiboa sartuz, intzidentzia handia baitu finantza kargetan, hiru urtean ordaindu behar baitugu, 2011-2013. Zor moduan zenbatu ezean, 2009, 2010, 2011 eta 2012ko zorpetze indizea izango litzateke, urtealdi bukaeran, %4,5, %4,2, %6 eta %5, hurrenez hurren. Beheraka “ezohikoa” gertatu da, finantza kargak jaitsi direlako, 2005etik 2 mailegu guztiz amortizatzean. Antzeko egoera, 2009ko foru funtsaren saldo negatiboa itzultzea amaitu izanagatik eta 2 mailegu amortizatu/bertan behera utzi izanagatik. 2011ra arte, benetako interes tipoa izan da urte amaierakoa. 2012tik aurrera, erabilitako interes tipoa, aurrekontuetarako, hurrengo urteko finantza kargak kalkulatzeko.

Koadro honetan ikusi daiteke zelan erlazionatzen diren euren artean zorpetze indizea zehazten duten aldagaiak. Horrela, adibidez, 1993 urtean gertaturikoa, 2,4 milioi euroan igo zen zor bizia eta, nahiz eta diru sarrera gutxiago izan operazio korranteak direla-eta, horrek ez zuen ekarri zorpetze indizea igotzea, interes tipoa ikaragarri jaitsi zen eta.

Edozelan ere, interes tipoa egonkortu denez apur bat, 1996/2017, ikusten dugu zorpetze indizea dabilela ekitaldi bakoitzeko zor biziaren arabera, amortizazio erritmoaren arabera eta diru

sarrera arrunten eboluzioaren arabera. Atal hauen eraginaren lagin garbia da behartuta gaudela hiru urtean Foru Aldundiari 2009ko UFFFen saldo negatiboa itzultzen, 3,3 milioi euro, ia bikoiztu egiten duena 2009ko ekitaldirako azken zorpetze indizea. Indize hori nabarmen jaisten da 2013tik aurrera, 2 mailegu guztiz amortizatu eta gero (Kutxa eta BBVA) eta behin betiko Foru Aldundiarekin dugun zorra kitatu eta gero.

Ez denez eskatu mailegu berririk 2011tik aurrera, interes tipoak egonkor jarraitzen duenez, zorraren zenbatekoa jaitsi denez eta azken urteotan diru sarrera arruntak hazi egin direnez apurka-apurka eta etenik gabe, behintzat, 2015era arte, elementu horien guztien ondorio bateratuak sortu du serie osoko zorpetze indize baxuenak izatea 2013-2018 aldikoak. 2016/2018 aldian mailegu bakarra dagoenez eta jarraitzen duenez egonkor interes tipoak, nahiz eta zorra jaitsi, mantentzen dira finantza kargak (amortiz.+ interesak), eta horrek esan gura du antzeko diru sarrera arrunt batzuekin zorpetze indizea ia ez dela aldatzen.

Honekin batera doan grafikoa ikusi daiteke zein den zor biziaren eboluzioa, maileguetan eta baliabide arruntek likidatutako eskubideetan, eta zein den zorpetzearen eboluzioa 0tik %25era (baimendutako gehieneko muga gisara definiturik).

